

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Autonomia
Erkidegoaren Administrazio
Orokorren Kontua**

**Cuenta de la Administración
General de la Comunidad
Autónoma del País Vasco**

2020





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	10
II.2 Administrazio orokorraren kontuari buruzko iritzia	10
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	11
III.1 Aurrekontuak eta kontabilitatea	11
III.2 Pertsonaleko gastuak.....	12
III.3 Dirulaguntzak	12
III.4 Kontratazioa.....	14
III.4.1 Kontratazioko urteko plana	14
III.4.2 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak.....	15
III.4.3 2020an esleitutako espedienteak	15
III.4.4 Kontratu txikiak.....	17
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	18
V. 2020KO EKITALDIKO KONTUAK.....	22
ERANSKINAK	29
A.1 Araudi ezargarria.....	29
A.2 Aurrekontuko aldaketak	30
A.3 Pertsonaleko gastuak.....	31
A.4 Funtzionamendu-gastuak	33
A.5 Transferentziak eta dirulaguntza korronteak eta kapitalezkoak.....	34
A.6 Inbertsio errealak	36
A.7 Aktibo finantzarioen gehikuntza	38
A.8 Tasak eta bestelako sarrerak	39
A.9 Transferentzia korronteek eragindako sarrerak	39
A.10 Kapital transferentziek eragindako sarrerak	41
A.11 Aktibo finantzarioen gutxitzea	41
A.12 Kobratzeke eta ordaintzeke dauden hondarrak	42
A.13 Diruzaintza	43
A.14 Aurrekontuz kanpoko eragiketak.....	44
A.15 Zor publikoa	46



A.16 Emandako abalak	49
A.17 Konpromiso-kredituak	50
A.18 Kontratazioa	52
A.19 Dirulaguntzen analisia.....	58
A.20 Kontabilitate publikoa.....	61
ALEGAZIOAK	63
ABREVIATURAS	83
I. INTRODUCCIÓN	85
II. OPINIÓN	86
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	86
II.2 Opinión sobre la cuenta de la administración general	86
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	87
III.1 Presupuestos y contabilidad.....	87
III.2 Gastos de personal	88
III.3 Subvenciones.....	88
III.4 Contratación	91
III.4.1 Plan anual de contratación.....	91
III.4.2 Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores	91
III.4.3 Expedientes adjudicados en 2020	92
III.4.4 Contratos menores.....	93
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	94
V. CUENTAS DEL EJERCICIO 2020.....	98
ANEXOS	105
A.1 Normativa aplicable	105
A.2 Modificaciones presupuestarias	106
A.3 Gastos de personal	107
A.4 Gastos de funcionamiento.....	109
A.5 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	110
A.6 Inversiones reales.....	112
A.7 Aumento de activos financieros	114



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.8 Tasas y otros ingresos	115
A.9 Ingresos por transferencias corrientes	115
A.10 Ingresos por transferencias de capital	117
A.11 Disminución de activos financieros	118
A.12 Residuos pendientes de cobro y pago	118
A.13 Tesorería.....	119
A.14 Operaciones extrapresupuestarias.....	120
A.15 Deuda pública	122
A.16 Avales concedidos	125
A.17 Créditos de compromiso.....	126
A.18 Contratación	128
A.19 Análisis de subvenciones.....	134
A.20 Contabilidad pública.....	137
ALEGACIONES	139

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 10a
Vitoria-Gasteiz, a 10 de octubre de 2022



LABURTZAPENAK

GKE	Gobernu Kontseiluaren Erabakia.
ADIF	Trenbideetako azpiegituren administratzailea.
IEB	Inbertsioen Europako Bankua.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EIBM	Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa.
BGP	Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
GET	Euskal Trenbide Sarea.
FEADER	Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsa.
FEAGA	Bermeen Nekazaritzako Europako Funtsa.
FEDER	Eskualdearen Garapen Ekonomikorako Europako Funtsa.
FEMP	Itsasoko eta Arrantzuko Europako Funtsa.
EGF	Europako Gizarte Funtsa.
BEZa	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
FEI	Finantzen Euskal Institutua.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
AEFILO	2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa.
EAEAOL	13/2020 Legea, abenduaren 27koa, 2020ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak.
EHTSB	Euskadiko trenbide sare berria.
EKB	Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
EAEKPP	Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Plana, 2012ko ekainaren 25eko Agindu bidez onartutakoa, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena.
ETE	Enpresa txiki eta ertainak.
APKLEO	1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko dena.
LGSS	Larrialdietako garraio sanitarioaren sarea.
EBS	Elkarrekiko Berme Sozietatea.
EKKLTB	2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.



SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
EAEHONALTB	1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
EAETB	1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Gaietan Indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bategina Onartu eta EAeko Sektore Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
LH	Lurralde historikoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
EB	Europar Batasuna.
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, berau arautzen duen 1/1988 Legean eta 2017ko ekitaldirako Urteko Lan Programan xedatutakoaren arabera, 2020ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txosten hau egin du.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, dirulaguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: aztertu da ea Kontua ezargarri diren kontularitzako printzipioen arabera gauzatzen den.
- EAEko Administrazio Orokorraren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasunari eta efizientziari buruzko analisia barne hartzen. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Tknika Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikatuko Zentroarentzako ekipoak erosteko espedientea (24 zk.), 833.281 euroan esleitua, larrialdiko salbuespenezko prozedura bidez izapidetu da, eta ez da behar bezala justifikatu prozedura horren erabilera, eta bi hilabetean gainditu da egikaritzen hasteko gehieneko epea, SPKLren 120. artikulua agindutakoa urratuz (A7 akatsa) (ikus A.18).

2.- 2020ko ekainaren 2ko eta 2021eko ekainaren 15eko Gobernu Kontseiluek euren gain hartu dute 2020ko ekitaldiko gastuen aldeko fiskalizazio juridiko eta ekonomikoa, Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren artikuluan aurreikusitako aparteko prozedura baliatuta; gastu horiek 55 milioi euroenak izan dira eta horien gainean EKBk aurkako txostena egin zuen. Gastu horiek honako hauei dagozkie: 27 milioi euroren 79 zerbitzu-kontraturik, 16,6 milioi euroren 8 hornidura-kontraturik, 276.464 euroren sendagaiak hornitzeko itun bati eta eskola-jantokietako eta eskola-garraioko zerbitzuak emateari uzteagatik 11,1 milioi euroren kalte-ordainei. Ez-betetze nagusiak izan dira prestazioak egitea dagokion kontratu-espedientea izapidetu gabe eta kontratu-araudian ezarritakoaren arabera legokiekeen publikotasun- eta lehia-printzipioak bete gabe. Administrazioak erabaki horietan jasotako baimena baino lehen ordaindu zituen obligazio horiek.

Gure ustez, aurrez azaldutako ez-betetzeak alde batera utzita, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak 2020. ekitaldian zuzentasunez bete du ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege araudia.

II.2 ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, eta 2020ko aurrekontuaren likidazioko 1.tik 4. oharera bitartean adierazitakoa aintzat hartuta, honekin batera aurkeztutako EAeko Administrazio orokorraren kontuek alderdi nabarmen guztietan adierazten dute 2020ko ekitaldiko ekonomia jarduera, 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren irudi zehatza, bai eta data horretan bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion bere emaitzena eta eskudiruzko fluxuena ere, aplikagarri den finantza informazioko arau esparruari jarraituz, eta, bereziki, hor jasotako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraikiz.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasota daude, alde batetik, ekonomia eta finantza jarduera zuzentzen duten printzipioak betetzean eragin nabarmenik ez duten akatsak; eta, bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jarri diren prozedurazko alderdiak.

III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

3.1.1.- Egoeraren balantzeak ez du ibilgetuaren zenbait kontu-sail osatzen dituzten ondasun guztien xehetasun banakaturik, hala nola: instalazio teknikoak, ekipo informatikoak, makineria, tresnak eta altzariak, aplikazio informatikoak, eta abar. Elementuak erositako urtearen arabera taldekatuta erregistratzen dira. Modu horretan erregistratutako zenbateko osoa 152,4 milioi euro da.

3.1.2.- EA Eren Sektore Publikoaren Aurrekontu Orokorren eta Urteko Kontuen likidazioan jasotako informazioak EA Eren Ekonomia Kontrol eta Kontabilitateko Legearen testu bateginaren 8. artikulua eta Euskadiko Aurrekontu Araubidearen testu bateginaren 124. artikulua gutxiengo izaerarekin eskatzen duten informazioa jasotzen du. Gomendagarria litzateke EA Eren sektore publikoa osatzen duten erakunde multzoaren egoera bateratuak barne hartzea, horien guztien ekonomia, finantza eta ondare egoera, eragiketen emaitza eta aurrekontuen likidazioa erakutsiko dutenak.

3.1.3.- Konpromiso-kredituen egoera-orrian ez dira jasotzen 565,8 milioi euroren konpromiso hartuak, honako hauei dagozkienak: 512,9 milioi euro Trenbide sare berria eraikitzeak eratorritako jarduketei dagozkienak; 2020ko abenduaren 4an Bilbao Exhibition Centre SArekin sinatutako hitzarmenaren aldaketan jasotako 51,6 milioi euroren konpromisoak, 2027tik 2031ra bitarteko aldirako hartutakoak; eta Klima Aldaketa Ikergai elkartearantzako 1,3 milioi euroren dirulaguntza izendunaren emakida.

Nolanahi den ere, ETSren 2021eko aurrekontuak 492,6 milioi euroan hartutako konpromisoak jasotzen ditu, Euskal Herriko Trenbide Sare Berria eraikitzeak eratorritako jarduerari dagozkienak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2 PERTSONALEKO GASTUAK

3.2.1.- Indarreko Lanpostu Zerrendek ez dituzte ekitaldi itxieran aurrekontuko zuzkidura zuten 1.188 lanpostu barne hartzen, ondoko xehakapenaren arabera:

LANGILERIA MOTA	PLAZA KOP.
Justiziako langileak	763
Hezkuntza Saileko langileak.....	46
Tokiko farmazialari sanitarioak.....	8
Hainbat sailtako langileak	11
GUZTIRA	828

Justiziako langileen plazak, gehien bat, Bilboko bulego judizialei dagozkie. Langileen lanpostu zerrendak onartzea EAEn Administrazio orokorraren egitekoa da, aldez aurretik Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren aldeko txostena jasota, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoko 522. artikulua xedatutakoaren indarrez.

3.2.2.- Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen maiatzaren 30eko 10/2012 Legeak biziarteko pentsioa kobratzeko eskubidearen baldintzak ezartzen ditu Administrazio hainbat kargudunentzat. Pentsio horiek, gehienetan, pentsio-sistema publikoaren onuradunek jasotako osagarri dira, eta/edo Gizarte Segurantzaren gehieneko pentsioaren zenbatekora mugatuta daude. Administrazioak ez du egiaztapen erregularrik egiten pentsioen sistema publikoaren onuradunek jasotako pentsioei buruz, eta, beraz, ezin izan da egiaztatu araudian ezarritako mugak betetzen diren ala ez.

III.3 DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntza zuzenak (ikus A.19)

3.3.1.- Administrazio Orokorrak Jaurlaritzako Kontseiluaren Erabaki bitartez 3,8 milioi euroren dirulaguntza zuzenak eman dizkie 13 onuraduni; onuradun horiek aurreko bi ekitaldietakoren batean ere helburu bererako dirulaguntzak jaso zituzten (A1 akatsa).

Baldin dirulaguntza horiei datozen ekitaldietan eusten bazaie, komenigarria litzateke aurrekontuetan izenez jasotzea.

3.3.2.- A.19 eranskinean jasotako dirulaguntzak aztertu ditugu eta honako alderdi hauek dira azpimarragarriak:

- Emandako dirulaguntzetatik 4tan, 15,2 milioi eurorenak, oroitidazkiek ez dute behar hainbat justifikatzen deialdi publiko bat egiteko ezintasuna, EAEHONALTBrren 49.7 artikulua agintzen duen bezala (A2 akatsa).
- Emandako dirulaguntzetatik 2tan, 20,6 milioi eurorenak, ez da inongo prozedurarrik finkatu jasotako helburu bereko beste laguntza batzuekiko bateragarritasunaren muga bete izana egiaztatzea bideratuko duenik (A.3 akatsa).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- COVID-19 protokoloak ezartzeko itunpeko ikastetxeei emandako 36,7 milioi euroren dirulaguntzan, ez zen bermea eratzeko eskatu egindako ordainketa aurreratuetan, 698/1991 Dekretuak agintzen duen moduan (A4 akatsa).
- Aztertutako 39,3 milioi euroren dirulaguntzetatik bitan ez da egiaztatu onuradunei banakako dirulaguntzarik esleitu zaienik, dirulaguntza emateko erabakian ezarritako baldintzei jarraikiz (A5 akatsa).
- 8 milioi euroko zuzeneko dirulaguntza batean, onuradunak ez du egiaztatu diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu dituela, lankidetzahitzarmenak aurreikusten duen moduan (A6 akatsa).
- Emandako dirulaguntzetatik 2tan, 2,7 milioi eurorenak, laguntza gehienen azken hartzaileak onuradunak ez ziren beste erakunde edo pertsona batzuk izan ziren, bitartekari gisa soilik jardun zutenak. Onuradun izan diren erakundeen jarduera beharrezkotzat jotzen bada laguntzak hobeto kudeatzeko, erakunde laguntzaile gisa parte hartzea finkatu beharko litzateke, erakunde horien araubidea arautzen duen 698/1991 Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera (A7 akatsa).

Dirulaguntza izendunak (ikus A.19)

3.3.3.- Emandako dirulaguntzetatik 3tan, 23 milioi eurorenak, emandako zenbatekoa EAEOln baimendutakoa baino handiagoa da, 18,3 milioi eurorena baitzen hura (A8 akatsa).

Ia zenbateko hori guztia EHUri emandako dirulaguntza bati dagokio, irakasle eta ikertzaileentzako ordainsari-osagarri gisa. Kontzeptu hori, duen izaeragatik, aldakorra da, eta diruz lagundutako zenbatekoa Eusko Jaurlaritzak % 85en ordaintzeko duen legezko betebeharrari dagokio.

Lehiari lotutako dirulaguntzak (ikus A.19)

3.3.4.- Hamalau dirulaguntza lerro arautzen dituen arautegia aztertzean –A.19an dago xehakatur-, honako akats hauek azaleratu dira:

- Aztertutako 14 lerroetan, gomendagarria litzateke aurrekontu-memorian (1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 11 zenbakiak) edo programa berriak garatzeko (7, 8, 9, 10, 12, 13 eta 14 zenbakiak) aurreikusitako neurrietan adierazle batzuk sartzea, proiektu eta onuradun kopurua kuantifikatze hutsari erantzutera mugatu gabe, haien eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatu ahal izateko (B1 akatsa).
- Aztertutako lerroetako batean (9 zenbakia), ez da argitaratu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emakida-proposamena egiteko ardura duen organoaren osaera, EAEHONALTBren 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, gainera, errefusatzeko eskubidea benetan erabiltzea eragozten du (B2 akatsa).
- Aztertutako lerroetako batean (7 zenbakia), eskabideak aurkezteko araudiak ezartzen duen epea EAEHONALTBren 51.1 artikuluan ezarritako gutxienezko hilabeteko epea baino laburragoa da (B3 akatsa).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Aztertu diren lerroetatik 4tan (6, 12, 13 eta 14 zenbakiak), arautegiak ez du ezartzen onuradunak obligazioa duela Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta HKEEK eskatzen dien informazioa emateko, EAEHONALTBren 51.1k artikuluan ezarritakoaren araera (B4 akatsa).
- Aztertutako 4 lerrotan (8, 9, 13 eta 14 zenbakiak), araudi erregulatzailerak konturako ordainketen araubide bat ezartzen du, justifikatu aurretik. Aldez aurretik egindako finantzaketa horrek salbuespenezko izaera behar du izan eta dirulaguntzari lotutako ekintzak gauzatu ahal izateko beharrezkoa dela justifikarazi gabe eman da, EAEHONALTBren 49.11 artikulua agintzen duena urratuz (B5 akatsa).
- Aztertu diren 14 lerrotatik 5tan (4, 5, 6, 11 eta 13 zenbakiak) ez dira laguntzak emateko ebazpenak argitaratu, EAEHONALTBren 49.2 artikulua agintzen duen moduan (B6 akatsa).
- Aztertutako 5 lerrotan (1, 2, 3, 5 eta 6 zenbakietan) ez da COVID-19aren ondoriozko aparteko laguntza jasoko duen diru-laguntzen plan estrategikoaren aldaketarik egin. Beste 4 lerrotan (4, 8, 9 eta 11 lerroetan), ezohiko laguntzen plana laguntza-deialdiaren ondoren aldatu da. Plan estrategikoaren aldaketa aldez aurretik egin behar da, DLOren 8.1 artikulua agintzen duen moduan (B7 akatsa).
- Aztertutako lerroetako batek (2. zenbakia), laguntzen moduluen araberrako ordainketa ezartzen duenak, ez du txosten tekniko arrazoiturik, DLOren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 76.1 artikulua zehazten duen bezala (B8 akatsa).

3.3.5.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2020ko azaroaren 13ko Aginduaren babesean emandako 29,1 milioi euroren dirulaguntzek, zeinak euskal ostalaritzaren sektorearentzako laguntzak arautzen eta deitzen baititu (COVID-19), ez zuten Gobernu Kontseiluaren aldez aurreko gastu-baimenik, EAEONLren 29.1 artikuluan ezartzen den moduan (C1 akatsa).

III.4 KONTRATAZIOA

Ekitaldi honetan egikaritu diren eta lehenagoko ekitaldietan esleitu ziren 16 espedienteko lagina eta 2020an esleitutako 21 espedienteko lagina aztertu dugu. Aztertutako espedienteen zerrenda A.18 eranskinean dago xehatua.

III.4.1 KONTRATAZIOKO URTEKO PLANA

2020ko ekitaldian, Administrazio-organoen, Justizia eta Lan Sailekoak izan ezik, ez dute Kontratazio-urteko Plana egin, ezta kontratatzailearen profilean argitaratu ere, SPKLren 28.4 artikulua agintzen duen moduan; Plan horrek, gutxienez, erregulazio harmonizatuko kontratuak jaso behar ditu. Hala ere, komenigarria litzateke ekitaldian egitea aurreikusita dauden kontratu guztiak argitaratzea, gardentasun handiagoa lortzeko eta ETEen lehia errazteko.



III.4.2 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 478,3 milioi euroan esleitutako 6 espedientetan (2, 3, 4, 6, 7 eta 8 zenbakiak), SPKLren 243.1 artikulua eta SPKLTBren 235. artikulua zehazten duten 3 hilabeteko epea gainditu da behin obrak hartu ondoren azken ziurtagiria onartzeko. Atzeraldiak 1,4 eta 14,2 hilabete bitartekoak izan dira (D1 akatsa).
- Berriatuko haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako zentroa zabaltzeko obra-espedientean (10 zenbakia), 2,4 milioi euroan esleitua, kontratazio-organoak segurtasun eta osasun plana eta zuinketa egiaztatzeko akta onartzeak baldintza-agirietan eta SPKLren 237. artikuluan, hurrenez hurren, ezarritako gehieneko epea gainditzeko du, eta horrek obrak hasteko sei hilabete baino gehiagoko atzerapena dakar (D2 hutsunea). Era berean, kontratazio-organoak ez du lan-programa onartu, APKLEOren 144.1 artikuluan eta pleguetan aurreikusitakoari jarraikiz (D3 hutsunea).
- Segurtasun Sailaren mendeko diren zentroetako garbiketa-zerbitzuaren espedientean (15. zenbakia), 393.550 euroren aldaketa bat izapidetu da, COVID-19ak eragindako egoeraren ondoriozko ezohiko garbiketengatik.
Aldaketaren exekuzioa espedientea esleitu eta onartu baino lehenagokoa da (D4 akatsa).
- Lemoizko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxea zabaltzeko obra-espedientean (9. zenbakia), 1,4 milioi euroan esleitutakoan, obra-aldaketa bat egin da, 228.413 eurokoa, dagokion espedientea izapidetu gabe eta SPKLren 205. artikuluan ezarritako baldintzak bete gabe (D5 akatsa). Gainera, urtebetetik gorako atzerapenak izan dira obra egitean, eta ez dira pleguetan aurreikusitako zigorrek ezarri (D6 akatsa).

III.4.3 2020AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 16 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (32 eta 35 zk.) ez da justifikatu lotetan ez banatzea, SPKLren 99.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (A1 akatsa).
- Guztira 28,2 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan (30, 32 eta 34 zenbakiak), espedientean ez da kostuen xehakapenik jaso, ez eta lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren kalkulua edo zehazteko modua justifikatzen duen azterketa ekonomikorik ere, SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (A2 akatsa).
- Guztira 13,3 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (19 eta 30 zk.), pleguetan aurreikusitako balizko aldaketa ez dator bat SPKLren 204. artikuluan xedatutakoarekin (A3 hutsunea).
- Guztira 10,1 milioi euroan esleitutako bi espedientetan (18 eta 19 zk.), kaudimen teknikoko irizpideak erabiltzen dira kontratuak esleitzeko irizpide gisa (A4 akatsa).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Administrazioaren hainbat arrisku aseguratzeneko espedientean (37. zenbakia), 31 milioi euroan esleitutakoan, balio-judizioari lotutako irizpideak baloratzen dituzten txosten teknikoak ez ditu behar hainbat arrazoitu emandako puntuazioak (A5 akatsa). Gainera, 3. loteari dagokion 1 milioi euroren primen erregularizazio bat izapidetu da, bizitza- eta istripu-aseguruen poliza, lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren hasierako kalkuluan akats bat konpontzeko. Erregularizazio hori aurreikusi gabe zegoen pleguetan eta aldaketa bat egitea eskatuko zukeen (C4 akatsa).
- Identifikazio biometrikoko sistema eguneratzeari buruzko espedientean (34. zk.), 3,3 milioi euroan publikotasunik gabeko prozedura negoziatu baten bidez esleitutakoan, ez da kontratua formalizatu dela EBAOn argitaratu, SPKLren 154. artikuluari jarraikiz (B3 akatsa). Formalizatu ondoren, urtekoak ez ziren prestazioaren hasiera-datara egokitu, eta hasiera batean 2020ko ekitaldirako aurreikusitako urteko guztia ordaindu zen; horrek 346.617 euroren ordainketa aurreratua eragin du, baldintza-agirietan ezarritako ordainketa-sistemari dagokionez (C1 akatsa). Publikotasunik gabeko prozedura negoziatua izapidetzeko, SPKLren 168. artikulua aurreikusitakoari jarraikiz, komeni da eskaintzen diren aukerei dagokienez xehetasun-maila handiagoa ematea arrazoi teknikoaren deskribapenean eta balorazio ekonomikoan (A6 akatsa).
- Guztira 15,6 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan (17, 35 eta 36 zk.) gainditu egin da SPKLren 158. artikulua esleipenerako finkatutako gehieneko epea (B1 akatsa).
- 12,8 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (26 eta 27 zk.) ez da ageri kontratua kontratatzailearen profilean argitaratu denik, SPKLren 154.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (B2 akatsa). Gainera, 27 zenbakiko espedientean, 1,6 milioi euroan esleitutakoan, kontratuaren egikaritza 4 hilabete baino gehiagotan gainditu du baldintza-agirietan aurreikusitako 3 hilabeteko epea (C3 akatsa).
- Txurdinagan 107 zuzkidura-bizitoki eraikitzeneko espedientean (21. zk.), 7,8 milioi euroan esleitua, 16 hilabetetan gainditu da kontratua formalizatzeko gehieneko epea (B4 akatsa) eta urtebetean obrak hasteko gehieneko epea (C2 akatsa), hurrenez hurren SPKLTBren 156.3 eta 229 artikuluetan ezarritakoa. Administrazioari egotz dakizkiokeen atzerapen garrantzitsu horien ondorioz, kontratistak erreklamazioa egin du kalte-galerengatik.
- Zaldibarko zabortegiko hainbat lan eta hornidurari buruzko espedientea (20. zk.) larrialdiko prozedura bidez izapidetu da eta 16,6 milioi euroko gastua izan du 2020ko ekitaldian; halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak gauzatutako jarduketari dagokienez, egindako esleipenak ez dira argitaratu ez kontratatzailearen profilean ez kontratuen erregistroan ere (B5 akatsa).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4.4 KONTRATU TXIKIAK

- Guztira 1 milioi euroren zenbatekoan egindako ondasun eta zerbitzuen 45 eskuraketa berrikusi ditugu, honako sail hauek gauzatutakoak: Hezkuntzak (39), Ekonomia eta Ogasunak (2), Lehendakartzak (2) eta Gobernantza Publikoa eta Autogobernuak (2); guztiak ere zuzenean egin direla ikusi dugu, zenbatekoa dela-eta zegokion lizitazio-prozedura izapidetu beharrean, zeinak, gutxienez, ireki sinplifikatu laburtua izan beharko zukeen.
- Guztira 6,2 milioi euroren zenbatekoa egin duten gastuak azaleratu dira, 204 hirugarreni dagozkienak, lehiaketa bidezko lizitazio bidez kontratatzeke gutxienera iristen ez badira ere, elkartu litezke aleko prezioetan edo ahalik eta lehia handiena bermatuko duten beste prozedura batzuk baliatuta lizitatzeko. Hezkuntza Saileko obra txikiei dagozkie.
- 25 kontratu txiki izapidetzeko jarraitu den prozedura egiaztatu da, SPKLren 118. artikulua aurreikusitakoari jarraikiz. Ikusi dugu 7tan ez dela erosketa egiteko beharra justifikatu, eta 15etan ez dagoela kontratuaren xedea ez aldatu izanari buruzko txosten arrazoiturik, kontratu txikiaren legezko atalaseak aplikatzea saihesteko.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Honako taula honek Aurrezki gordinak, Emaizta arruntak eta Aurrekontuko emaitzak azken lau ekitaldietan izan duten bilakaera erakusten du:

	2017	2018	2019	2020	Euroak, milioikotan	
					2020/2019	
					Aldea	%
Sarrera korronteak (1)	10.128,5	10.275,3	10.686,5	10.111,0	(575,5)	(% 5,4)
Zeharkako zergak	4,0	4,1	4,1	2,4	(1,7)	(% 41,5)
Tasak eta beste	178,0	170,0	179,8	138,5	(41,3)	(% 23,0)
Transferentziak eta dirulag. korronteak	9.944,3	10.099,6	10.499,2	9.943,1	(556,1)	(% 5,3)
Ondare-sarrerak	2,2	1,6	3,4	27,0	23,6	% 694,1
Gastu arruntak (2)	8.979,7	8.951,9	9.349,6	9.886,3	536,7	% 5,7
Pertsonaleko gastuak	2.020,8	2.043,8	2.161,3	2.242,1	80,8	% 3,7
Funtzionamendu-gastuak	3.448,9	3.524,5	3.702,1	3.958,3	256,2	% 6,9
Transferentziak eta dirulag. korronteak	3.510,0	3.383,6	3.486,2	3.685,9	199,7	% 5,7
Aurrezki gordina (3=1-2)	1.148,8	1.323,4	1.336,9	224,7	(1.112,2)	(% 83,2)
Gastu finantzarioak (4).....	185,4	180,1	178,7	146,0	(32,7)	(% 18,3)
Emaizta korrontea (5=3-4)	963,4	1.143,3	1.158,2	78,7	(1.079,5)	(% 93,2)
Inbertsio garbiak (6)	843,6	828,6	1.073,4	942,3	(131,1)	(% 12,2)
Inbertsio errealak	202,0	178,6	135,1	155,1	20,0	% 14,8
Kapital transf. eta dirulag.	697,7	694,3	701,5	685,0	(16,5)	(% 2,4)
Aktibo finantzarioen gehikuntza	104,9	97,6	314,0	220,7	(93,3)	(% 29,7)
Inbertsio errealen besterentzea	0,2	12,1	0,1	-	(0,1)	(% 100,0)
Jasotako kapital transf. eta dirulaguntzak.....	137,0	106,4	56,4	69,9	13,5	% 23,9
Aktibo finantzarioen gutxitzea	23,8	23,4	20,7	48,6	27,9	% 134,8
Jaulkitako zor garbia (7)	321,0	58,7	(489,1)	1.406,0	1.895,1	
Pasibo finantzarioen gehikuntza.....	975,0	1.273,7	870,7	2.092,6	1.221,9	% 140,3
Pasibo finantzarioen gutxitzea.....	654,0	1.215,0	1.359,8	686,6	(673,2)	(% 49,5)
Aurrekontu korrontearen emaitza (8=5-6+7)	440,8	373,4	(404,3)	542,4	946,7	
Aurrekontu itxien emaitza (9)	(33,6)	(3,9)	2,9	(2,1)	(5,0)	
Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (8+9)	407,2	369,5	(401,4)	540,3	941,7	

COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikoak eta horren ondorioak arintzeko agintariak hartu zituzten neurriek eragin zuten, 2020ko martxotik aurrera, jarduera ekonomikoa murriztea eta osasun- eta gizarte-neurriei lotutako gastu publikoa handitzea.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Administrazio Orokorrek aurrekontu-programa espezifikoa bat sortu zuen, «COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak» izenekoa, pandemiaren ondoriozko edo harekin lotutako gastuak hobeto kontrolatzeko. Ekitaldia ixtean, programa horren kargura egindako gastua 419,1 milioi euro izan zen, eta etorkizuneko ekitaldietarako 62,6 milioi euroren gastua hitzartu da.

Sarrera korranteak % 5,4 murriztu dira aurreko ekitaldiaren aldean, eta gastu arruntak % 5,7 gehitu dira, 224,7 milioi euroko aurrezki gordina sortuz, hau da, % 83,2 murriztu dira 2019an eskuratutakoaren aldean.

Diru-sarrera korranteen 575,5 milioi euroren murrizketa, funtsean, bi arrazoiengatik gertatu da. Alde batetik, foru aldundiek aurreko ekitaldian baino 1.153,9 milioi euro gutxiago eman dituztelako, zerga itunduen bilketa % 9,8 murriztu delako. Bestetik, Estatuko Administrazio Orokorretik diru-funtsak jaso dira pandemia horrek eragindako osasun-, hezkuntza- eta gizarte-gastuaren eragina arintzeko (585,6 milioi euro).

Gastu korranteak 536,7 milioi euro igo dira, honako hauen ondorioz, batez ere: langileen gastuak handitu direlako, ordainsariak eta kontratazioak gehitu izanaren ondorioz (42,6 milioi euro); gizarte-kotizazioak, gizarte-aurreikuspeneko erakundeei egindako ekarpenak eta langileei lotutako aseguruak handitu direlako, (40,1 milioi euro); osasun-zerbitzuak handitu direlako (247 milioi euro); baita, erakunde-administrazioari egindako transferentziak (90,9 milioi euro) eta udalerriei (25,5 milioi euro), EHUri (14,4 milioi euro) eta sektore pribatuari (91,3 milioi euro) egindako transferentziak eta dirulaguntzak ere. Igoera horiez gain, Administrazio Orokorrek Egokitzapenerako Funts Orokorriari egin dion ekarpena ere nabarmen murriztu da (59,3 milioi euro).

Ekitaldiko gastu finantzarioak 32,7 milioi euro murriztu dira, batez ere zorraren eta maileguen jaulkipenei aplikatu beharreko interes-tasak murriztu direlako 2019ko ekitaldikoekin alderatuta.

Honela, bada, inbertsio garbiak 131,1 milioi euro murriztu dira; izan ere, 2019an ezohiko ekarpenak egin zitzaizkion Osakidetza erakunde publikoari (134,2 milioi euro) garapen profesionaleko sistematik eratorritako gastuak finantzatzeko, eta Alokabide SA sozietate publikoari (75,5 milioi euro) zorraren amortizazio aurreraturako, nahiz 2020an ez den egin. Ekitaldian zehar egin den inbertsiorik garrantzitsuena FEIren Gizarte Funtsari egindako 130 milioi euroren ekarpena izan da.

Ekitaldiko emaitza arrunta ez da nahikoa inbertsio garbia finantzatzeko eta honenbestez, zorpetze bidea baliatu behar izan da. Alabaina, ekitaldiko zorpetze garbia inbertsio garbiaren finantzaketa-beharrak baino askoz handiagoa izan da eta horren ondorioz, 2020ko ekitaldiko aurrekontuko saldoak 540,3 milioi euroren superabita du.




Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hona hemen adierazle nagusien bilakaera grafikoan jasota:

AURREZKI GORDINA, INBERTSIO GARBIA ETA JAULKITAKO ZOR GARBIA



Azken lau ekitaldietan, diruzaintza geldikinaren eta formalizatutako zorpetzearen bilakaera honako hau izan da:

	Euroak, milioikotan				Bariazioa
	2017	2018	2019	2020	2020/19
DIRUZAINZA GELDIKINAREN BILAKAERA					
Diruzaintza geldikina	728,4	1.098,0	696,6	1.236,9	540,3
Zuzkidurak eta doikuntzak	139,5	146,2	162,4	164,2	1,8
Diruzaintzako geldikin erabilgarria	588,9	951,8	534,2	1.072,7	538,5
ZORPETZEAREN BILAKAERA					
Erabilitako zorra (balio nominala 12.31n)	9.085,0	9.136,8	8.647,0	10.063,9	1.416,9
Erabili gabeko zorra	140,0	-	-	-	-
Formalizatutako zorpetzea	9.225,0	9.136,8	8.647,0	10.063,9	1.416,9

Diruzaintza geldikina 540,3 milioi euro gehitu da eta horri gehitzen badiogu zuzkidurak eta doikuntzak 1,8 milioi euro gehitu izana, guztiak ere ekitaldi itxieran diruzaintza geldikin erabilgarria 538,5 milioi euro gehitzea eragin du.

Balio nominalarekin formalizatu eta erabilitako zorrak 1.416,9 milioi euro egin du gora eta 2020ko ekitaldi itxieran 10.063,9 milioi euroren zenbatekoa egin du.



AURREKONTUAREN EGONKORTASUN ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUN HELBURUEN JARRAIPENA

AEFILOk arautzen ditu Administrazio publikoen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko alderdiak. Hirugarren azken xedapenak agintzen du, lege horretan ezarritakoa Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatzean, aintzat hartu beharko dela Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoa.

Bestalde, EAErekiko Kontzertu Ekonomikoa onesten duen 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 48. artikuluan aurreikusita dago Estatuarekiko koordinazioa eta kolaborazioa, aurrekontuaren egonkortasunari dagokionez. Lege bereko 62. artikulua, bestetik, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren egitekoen artean bereizten du aurrekontuaren egonkortasun gaietan kolaborazio- eta koordinazio-konpromisoak hitzartzea.

2020ko martxoaren 11ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabaki bitartez, aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak zehaztu ziren 2020ko ekitaldirako eta 2021-2023 aldirako. Erabaki horiek Ministro Kontseiluaren 2020ko otsailaren 11ko bi akordiotan ezarritako aurrekontu-egonkortasunaren ildoaren baitan ezarri ziren eta horien bidez, 2020ko ekitaldian eta 2021-2023 aldian administrazio publiko guztientzat aplikatu beharreko egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastuaren arauaren helburuak finkatu ziren.

COVID-19aren pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, 2020ko uztailaren 31n, EAEko Administrazio Orokorrak eta Estatuko Administrazio Orokorrak ezarritako helburuak berrikustea adostu zuten, hasiera batean hitzartutako egoera betetzea ezinezkoa zelako. Horrela, bada, aurrekontuaren egonkortasun helburua defizitaren % 2,6an ezarri zen eta zor publikoarena % 15,9an, biak ere Barne Produktu Gordinaren gainean kalkulaturik. Gastu-araua, berriz, ez zen aldatu, eta 2020ko ekitaldirako gastuaren gehieneko igoera aurrekoaren aldean % 2,9koa izango da, ekonomiaren erreferentziazko hazkunde-tasaren kalkulua arabera. Akordioa EIBMk 2020ko irailaren 30ean egindako bileran berretsi zen, nahiz eta bilera horretan 2020ko ekitaldirako zor publikoaren helburu berri bat onartu zen, azkenean % 16,3an finkatu zena.

Gerora, Ministro Kontseiluaren 2020ko urriaren 6ko Erabakiaren bidez, Diputatuen Kongresuari eskatu zitzaion ezohiko larrialdi-egoera aintzat hartu zezala, Konstituzioaren 135.4 artikuluan eta AEFILOren 11.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta Ministro Kontseiluaren 2020ko otsailaren 11ko erabakiak, lehen aipatutakoak, bertan behera utzi zituen. Ondorioz, 2020ko ekitaldiari dagokionez ez da aplikagarria aipatutako helburuak betetzea eta erreferentzia soil modura hartu behar dira.

Ildo horretan, Ogasun Ministerioak 2021eko maiatzean eta azaroan egindako aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuen jarraipen-txostenetan jasotako datuetatik ondorioztatzen da, AEFILOren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, EAEk ez duela gainditu 2020ko ekitaldian defiziterako, gastu-araurako eta zor publikorako ezarritako erreferentzia-mugetako bat bera ere.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. 2020KO EKITALDIKO KONTUAK 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

AURREKONTU KORRONTEA							Euroak, milioikotan
SARRERAK KAPITULUA	HASIER.		B. BETIKO AURREK.	ESKUBIDE		KOBURATU GABE	
	AURREK.	ALDAK.		AITORTUAK	KOBURATUA		
2. Zeharkako zergak	4,3	-	4,3	2,4	2,2	0,2	
3. Tasak eta bestelako sarrerak (A.8).....	69,2	51,7	120,9	138,5	111,3	27,2	
4. Transf. eta dirulag. korronteak (A.9)	10.570,5	41,1	10.611,6	9.943,1	9.654,7	288,4	
5. Ondare-sarrerak.....	1,4	0,1	1,5	27,0	27,0	-	
6. Inbertsio errealen besterentzea	-	-	-	-	-	-	
7. Kapitalezko dirulag. eta transf. (A.10).....	126,5	5,9	132,4	69,9	52,7	17,2	
8. Aktibo finantzarioen gutxitzea (A.11).....	115,8	360,8	476,6	48,6	42,3	6,3	
9. Pasibo finantzarioen gehikuntza (A.15).....	886,3	-	886,3	2.092,6	2.092,6	-	
GUZTIRA	11.774,0	459,6	12.233,6	12.322,1	11.982,8	339,3	

Euroak, milioikotan						
GASTUAK KAPITULUA	HASIER.		B. BETIKO AURREK.	OBLIGAZ.		ORDAINDU GABE
	INICIAL	ALDAK.		AITORTUAK	ORDAIND.	
1. Pertsonaleko gastuak (A.3).....	2.233,8	32,8	2.266,6	2.242,1	2.241,0	1,1
2. Funtzionamendu gastuak (A.4)	3.756,8	262,1	4.018,9	3.958,3	3.650,5	307,8
3. Gastu finantzarioak (A.15)	215,6	(63,2)	152,4	146,0	145,7	0,3
4. Transf. eta dirulag. korronteak (A.5)	3.682,2	145,5	3.827,7	3.685,9	3.457,7	228,2
6. Inbertsio errealak (A.6).....	285,1	(34,9)	250,2	155,1	105,7	49,4
7. Kapitalezko dirulag. eta transf. (A.5).....	715,1	62,5	777,6	685,0	459,4	225,6
8. Aktibo finantzarioen gehikuntza (A.7).....	170,7	54,8	225,5	220,7	220,7	-
9. Pasibo finantzarioen gutxitzea (A.15).....	714,7	-	714,7	686,6	686,6	-
GUZTIRA	11.774,0	459,6	12.233,6	11.779,7	10.967,3	812,4

AURREKONTU ITXIAK (A.12)					Euroak, milioikotan
	ZORRA		KOBUR./		
	19.12.31N	ORDAINK.	BALIOGAB.	20.12.31N	
Diru-sarrerak.....	724,1	361,7	12,6	349,8	
Gastuak.....	887,9	787,8	10,5	89,6	

KREDITU KONPROMETITUAK (A.17)				Euroak, milioikotan
KAPITULUA	HASIERA URTEA			
	AURREKO URT.	2020	GUZTIRA	
1. Pertsonaleko gastuak.....	-	12,6	12,6	
2. Funtzionamendu-gastuak	84,4	233,0	317,4	
4. Transferentziak eta dirulag. korronteak.....	108,7	111,1	219,8	
6. Inbertsio errealak	30,5	33,8	64,3	
7. Kapitalezko transferentziak eta dirulagun.	194,8	210,3	405,1	
8. Aktibo finantzarioen gehikuntza.....	157,9	18,5	176,4	
GUZTIRA	576,3	619,3	1.195,6	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZKO OHARRAK

- 1. oharra.** EAren Administrazioako diruz lagungarri diren gastuak dirulaguntzak ematen diren unean erregistratzen dira, eta aplikatuko zaien aurrekontu erregimena aurre egin beharreko ordainketei edota dirulaguntza edo laguntzaren baldintzak egiaz betetzeari dagokionez egokien diren kreditu motaren arabera izango da, ordainketazkoa edo konpromisozkoa, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeak ezarritako irizpideari jarraikiz. Irizpide horren ondorioz, 2020ko abenduaren 31n badira oraindik eskagarriak ez diren ordainketa-obligazioak, 103,4 milioi euroren zenbatekodunak.
 - 2. oharra.** 2020ko abenduaren 31 arte jasotako funts komunitarioetatik zati bat, 508,5 milioi euro Europar Batasunak ikuskatu ditzake, eta ezinezkoa da zehaztea finantzatutako proiektuen berrikuspenak diruzaintza geldikinen gainean izan dezakeen eragina. Nolanahi ere, iragan esperientzia oinarri hartuta, ez dirudi eragin hori adierazgarria izango denik.
 - 3. oharra.** Zorpetze publikoari dagozkion sortutako eta iraungi gabeko interesak (86,4 milioi euro) urteko kontuetan erregistratzen dira eta ondarearen emaitza ekonomikoaren zati dira. Aurrekontuaren egikaritzak ez du zenbateko hori islatzen, izan ere, interesen gastuak kutxa irizpideari jarraikiz erregistratzen baititu.
 - 4. oharra.** Bizkaiko Garraio Partzuergoaren finantza planak, Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak 2021etik 2027ra bitarteko urteetan 211,4 milioi euroren ekarpena egitea aurreikusten du, urte horietako EAren Aurrekontu Orokorretan kontsignatuko direnak, Partzuergoari ekitaldi bakoitzean egin beharreko transferentziari dagokion kopuruan.
-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ZORPETZEA	Euroak, milioikotan
SALDOA 19.12.31n	8.647,0
Zorra jaukitzea (balio nominala)	1.733,5
Mailegu berrien erabilera (balio nominala)	370,0
Amortizazioa	686,6
SALDOA 20.12.31N (Balio nominala) (A.15)	10.063,9

2020KO EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GELDIKINA 2020-12-31N	Euroak, milioikotan
Diruzaintza geldikina 19.12.31n	696,6
2020ko ekitaldiko aurrekontu emaitza.....	540,3
Aurrekontu korrontearen emaitza	542,4
Aurreko ekitaldietako eragiketen emaitza (A.12)	(2,1)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA 20.12.31N	1.236,9

DIRUZAINZAKO GELDIKINAREN GAUZATZEA 2020-12-31N	Euroak, milioikotan
DIRUZAINZAKO (A.13)	2.423,2
KOBRAZTEKOA	849,0
Indarrean den ekitalditik kobratzeke dauden eskubideak	339,3
Itxitako ekitaldietatik kobratzeke dauden eskubideak	349,8
Zordunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14)	159,9
ORDAINTZEKOA	(2.035,3)
Indarrean den ekitaldiko ordaintzeke dauden obligazioak.....	(812,4)
Itxitako ekitaldietako ordaintzeke dauden obligazioak	(89,6)
Hartzekodunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14)	(1.133,3)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA 20.12.31N	1.236,9

DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 20.12.31N	Euroak, milioikotan
Diruzaintza geldikina 20.12.31n	1.236,9
Atxikitako geldikina:	
Ikastetxe publikoetarako geldikina.....	(62,2)
Zalantza eskubideak	
Bestelako eskubide aitortuak	(45,1)
Diru-bilketa, betearazte bidean.....	(28,0)
Exekutututako abalek eragindako erreklamazioak (A.16)	(28,9)
DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 20.12.31N	1.072,7



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

URTEKO KONTUAK

BALANTZEA			Euroak, milioikotan		
AKTIBOA	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2020	2019
AKTIBO EZ-KORRONTEA	4.947,9	4.786,6	ONDARE GARBIA	(4.097,9)	(3.381,6)
lbilgetu ukiezina.....	52,0	44,7	Sortutako ondarea	(4.296,9)	(3.571,6)
lbilgetu materiala	2.737,9	2.730,2	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(3.571,6)	(3.870,0)
Epe luz. finantza inb., taldeko erak.	1.870,9	1.743,2	Ekitaldiko emaitzak	(725,3)	298,4
Epe luz. finantza inbertsioak	183,6	179,8	Bst. ondare igoerak, emaitz. egozteke	199,0	190,0
Zord. eta kobratz. bst. knt. batz epe luz. .	103,5	88,7	PASIBO EZ-KORRONTEA	10.095,4	8.681,0
AKTIBO KORRONTEA	3.215,5	2.514,2	Epe luz. zuzkidurak	27,3	27,6
Izakinak	45,3	17,9	E/luzeko zorrak	10.029,3	8.620,2
Zordunak eta kobr. bst. knt. b.	737,5	830,2	Hartzek. eta ordain. bst. knt b. epe luz. ...	38,8	33,2
Epe lab. finantza inbertsioak	9,5	9,8	PASIBO KORRONTEA	2.165,9	2.001,4
Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz.	2.423,2	1.656,3	Zorrak epe lab.....	237,6	230,1
			Taldeko erakund. zorrak, epe lab.	780,6	634,0
			Hartzek. eta ordain. bst kontu b.....	1.147,7	1.137,3
AKTIBOA, GUZTIRA	8.163,4	7.300,8	ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA	8.163,4	7.300,8

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak, milioikotan	
	2020	2019	
Zerga-sarrerak	13,1	17,2	
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	9.969,3	10.547,3	
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea	37,6	652,1	
Amaitutako eta abian diren produktuen izakinen bariazioa eta balioaren narriadura.....	27,6	(618,4)	
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	88,2	124,4	
Hornidura gehiegizkoak	6,6	7,2	
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	10.142,4	10.729,8	
Pertsonaleko gastuak	(2.242,1)	(2.161,3)	
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	(4.361,9)	(4.238,6)	
Hornidurak	(48,3)	(16,2)	
Kudeaketa korronteko bst gstu batz.....	(3.937,5)	(3.697,1)	
lbilgetua amortizatzea	(100,4)	(102,2)	
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(10.690,2)	(10.215,4)	
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA: AURREZKIA (AURREZKI-EZA)	(547,8)	514,4	
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa besterenganatzeagatikoa emaitzak eta aktiboak salgai.....	(2,6)	0,1	
Arruntak ez diren beste partida batzuk	(14,0)	3,4	
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK	(564,4)	517,9	
Sarrera finantzarioak	34,5	11,0	
Gastu finantzarioak	(149,2)	(180,9)	
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(46,2)	(49,6)	
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(160,9)	(219,5)	
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA: AURREZKIA (AURREZKI-EZA)	(725,3)	298,4	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA

1.- ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak, milioikotan

	SORTUTAKO	ONDAREKO BST.	GUZTIRA
	ONDAREA	IGOERA BATZUK	
ONDARE GARBIA, 2019KO EKITALDIAREN BUKAERAN	(3.571,6)	190,0	(3.381,6)
2020KO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN BARIAZIOAK	(725,3)	9,0	(716,3)
Ekitaldian aitortutako sarrerak eta gastuak	(725,3)	9,0	(716,3)
ONDARE GARBIA, 2020KO EKITALDIAREN BUKAERAN	(4.296,9)	199,0	(4.097,9)

2.- AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

Euroak, milioikotan


	2020	2019
	EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA AURREZKIA (AURREZKI-EZA)	(725,3)
Ondare garbian zuzenean jasotako aitortutako sarrerak eta gastuak		
Bestelako ondare sarrerak.....	13,4	0,4
Ondare emaitza ekonomikoaren kontura edo kontu sailaren hasierako baliora transferentziak		
Bestelako ondare gehikuntzak.....	(4,4)	(6,2)
DIRU-SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA	(716,3)	292,6



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA	Euroak, milioikotan	
	2020	2019
KUDEAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXU GARBIAK		
Kobr.	10.183,0	11.014,6
Zerga-sarrerak	14,3	16,9
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	10.051,7	10.840,9
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak	16,8	17,7
Interesak eta dibidendu kobratuak	3,7	3,6
Bestelako kobrantzak	96,5	135,5
Ordaink.	10.721,0	10.170,7
Pertsonaleko gastuak	2.219,2	2.159,5
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	4.336,4	4.125,0
Hornidurak.....	38,1	33,9
Bestelako kudeaketa gastuak	3.961,3	3.666,0
Ordaindutako interesak	141,6	176,0
Beste ordainketa batzuk	24,4	10,3
Aurrekontukoak ez diren beste kobrantza eta ordainketa batzuk	-	116,2
Kudeaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak	(538,0)	960,1
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXU GARBIAK		
Kobr.	99,2	56,5
Inbertsio errealeen salmenta.....	0,3	0,7
Aktibo finantzarioen salmenta.....	69,4	14,5
Inbertsio jardueretako beste kobrantza batzuk	29,5	41,3
Ordaink.	346,8	468,4
Inbertsio errealeen erosketa	103,0	110,2
Aktibo finantzarioen erosketa.....	220,7	314,6
Inbertsio jardueretako beste ordainketa batzuk	23,1	43,6
Inbertsio jardueretako eskudiru fluxu garbiak	(247,6)	(411,9)
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXU GARBIAK		
Finantza-pasiboak jaulkitzeagatiko kobrantzak	3.476,3	1.254,2
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk	1.722,6	768,5
Jasotako maileguak	1.753,7	485,7
Finantza-pasiboak itzultzeagatiko ordainketak	2.016,6	1.709,8
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk	81,3	716,8
Jasotako maileguak	1.935,3	993,0
Finantzaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak	1.459,7	(455,6)
ERAKUNDE AUTONOMOEKIKO ZORREN BARIAZIOA	92,8	37,8
ESKUDIRUAREN GEHIKUNTZA EDO MURRIZKETA GARBIA ETA		
ESKUDIRUAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOAK	766,9	130,4
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit. hasieran	1.656,3	1.525,9
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit amaieran	2.423,2	1.656,3



ERANSKINAK

A.1 ARAUDI EZARGARRIA

Hona hemen 2020an EAEren Administrazio orokorraren aurrekontuen ekonomia kudeaketan eta likidazioan eragina duten arau nagusiak:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 8/1996 Legea, 1996ko azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko finantzei buruzkoa.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Martxoaren 23ko 2/2007 Legea, Baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko Metodologiari buruzkoa, 2007-2011 aldiari ezargarri zaiona.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, 2007ko azaroaren 6koa, Euskadiko Ondarearen Legearen testu bategina onesten duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEren Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
Auzitegietan eta adingabeen zentroetan zaintza eta segurtas. ...	-	-	1,4	2,7	-	4,1
Aplikazio informatikoen bilakaera eta mantentze-lanak.....	-	-	-	1,3	-	1,3
GUZTIRA	30,5	4,2	1,4	4,0		40,1



Espediente aztertuak

37 espediente aztertu dira: 21 hautatu dira 2020ko ekitaldian esleitutakoen artetik, eta 16, aurreko ekitaldietan esleitu diren eta 2020an gauzatu edo intzidentzia izan dutenen artetik.

Aurreko ekitaldietan esleitu diren aztertutako espedienteen zerrenda honako hau da:

		Euroak, milioikotan				
ESP.	ZK.	MOTA	ESLEI. ZENBAT.	EGIK. 2020	EGIK. 20.12.31	AKATSAK
1.	Euskal Y-a Urnieta-Hernani zatia.....	O	139,3	-	133,2	
	Prezioak berrikustea		7,9			
	Segurtasuna		0,8			
	Espediente aldatua		(8,6)			
2.	Euskal Y-a Antzuola – Ezkio Itsaso Mendebaldea zatia.....	O	122,0	10,4	168,1	D1
	Prezioak berrikustea		5,5			
	Espediente aldatua		23,8			
	Segurtasuna		0,6			
	Kalte-ordainak.....		6,3			
	Amaierako ziurtagiria		10,4			
3.	Euskal Y-a Hernialde-Zizurkil zatia.....	O	162,1	0,7	155,8	D1
	Larrialdia		3,1			
	Obrak hastean berandutzeagatiko kalte-ordaina.....		0,5			
	Espediente aldatua		(6,5)			
	Amaierako ziurtagiria		0,7			
4.	Euskal Y-a Zizurkil-Andoain zatia	O	184,4	8,2	186,9	D1
	Espediente aldatua		0,7			
	Kalte-ordaina.....		0,1			
	Amaierako ziurtagiria		8,1			

.../...



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

.../...

Euroak, milioikotan

ESP. ZK.	MOTA	ESLEI. ZENBAT.	EGIK. 2020	EGIK. 20.12.31	AKATSAK
5. Bilboko Iruarteta HLHI ikastetxe berria eraikitzea.....	O	4,9	0,8	5,8	
Espediente aldatua		0,4			
Amaierako ziurtagiria		0,5			
6. Gasteizen Errekabarri HLHI ikastetxe berria eraikitzea.....	O	6,2	0,9	7,4	D1
Espediente aldatua		0,6			
Amaierako ziurtagiria		0,6			
7. Zestoako Arroa Behean HLHI Arroa ikastetxe berria eraikitzea....	O	2,0	0,1	2,1	D1
Amaierako ziurtagiria		0,1			
8. Zumaian, Oikian HLHI ikastetxe berria eraikitzea	O	1,6	0,1	1,7	D1
Amaierako ziurtagiria		0,1			
9. Lemoizen HLHI Lemoizko lehen hezkuntzako eraik. handitzea	O	1,4	0,7	1,2	D5,6
Espediente aldatua		0,2			
10. Berriatuko HLHI handitzea	O	2,4	1,5	1,5	D2.3
11. Bilboko Henao k, 9 zk. eraikina zaharberritu eta handitzea	O	7,2	1,4	3,8	
Espediente aldatua		0,4			
12. EAEko Adm. orok. kudeaketa bateratuko eraikinean zaharberritze, konponketa eta mantentze-lanak	O	1,5	0,9	1,7	
Esped. aldatua 2019, 1. lotea Araba		0,1			
Esped. aldatua 2020, 1. lotea Araba		0,1			
13. Arrain-lonja berria eraikitzea A.I.1 eremua, Ondarruko portua ...	O	16,6	8,9	11,4	
14. Arabako eta Gipuzkoako irakaskuntzako ikastetxe publikoetako eskola-garraioko laguntzaileak	H	4,6	1,1	3,4	
Zerbitzua eteteagatik kalte-ordainen aurrerakina		0,5			
15. Seguritasun Sailaren mendeko zentroak garbitzeko zerbitzua.....	H	12,6	6,3	6,5	
COVID-19agatik aparteko garbiketen esped. aldatua.....		0,4			D4
16. Hainbat arriskuren aseguru Sei lote (*).....	Prib.	18,1	-	18,4	
Motordun ibilgailuak IV. lotearen esped. aldatua		0,3			
Motordun ibilgailuak IV. lotearen gehigarria		0,1			
GUZTIRA		744,7	42,0	708,9	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2020ko ekitaldian formalizatu diren aztertutako espedienteen zerrenda honako hau da:

Euroak, milioikotan					
ESP.			ESLEIP.	EGIK.	
ZK.	MOTA	PROZED.	ZENBAT.	2020	AKATSAK
17. Derion BHko DBHko eraikin berria, Derio	O	Irekia	8,5	0,4	B1
18. Getxoko ertzain-etxea eraberritzea eta handitzea	O	Irekia	7,9	0,8	A4
19. Bermeoko portuko babes-dikea sendotzea. II. fasea.....	O	Irekia	2,2	-	A3,4
20. Zaldibarko zabortegia hondeatzea, segurtasun-dikea eraikitzea eta agregatuz hornitzea	O	Zuzena (1)	16,6	16,6	B5
21. 107 zuzkidura-bizitoki eraik. partz.002, Pol.314, AR 301, Txurdinaga	O	Irekia	7,8	-	B4-C2
22. 43 zuzkidura-bizitoki eraik. 6.1.01 sektorea, Larzabal, Irun	O	Irekia	4,6	0,2	
23. Chromebook ekipoak hornitzea, instalatzea eta konfiguratzea ikastetxe publikoentzat	Horn.	Irekia	2,3	2,3	
24. Tknika LHko lkerketa eta Berrikuntza Aplikatu Zentrarako ekipoak erostea	Horn.	Zuzena (1)	0,8	0,8	A7
25. Difteriaren, tetanosaren, kukutxetulararen eta bestelakoen aurkako txerto konbinatu hexabalentea eskuratzea	Horn.	Irekia	1,5	1,3	
26. Segurtasun Sailaren hardwarea eta softwarea eguneratzea	Horn.	PGN	11,2	6,0	B2
27. Trafikoko patruila-motozikletak hornitzea.....	Horn.	Irekia	1,6	0,7	B2-C3
28. COVID-19ari eusteko babes-materiala hornitzea	Horn.	Zuzena (1)	2,5	2,5	
29. COVID-19ari eusteko babes-materiala hornitzea	Horn.	Zuzena (1)	0,6	0,6	
30. Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoen eta laguntza-zentroen garbiketa	H	Irekia	11,1	6,3	A2,3
Aparteko garbiketak (gastu baliozkotua).....				0,4	
31. Larrialdiko osasun-garraioa eta osasun-larrialdietarako laguntza EAeko LGSSrako.....	H	Irekia	115,6	16,1	
32. Euskadiko Osasun Sistemako pazienteen osasun-laguntza zerbitzu atzerazina.....	H	Irekia	13,8	2,5	A1,2
33. ZERB. Euskadiko Osasun Sistemako pazienteak ospitaleratzeko zerb. COVID-19 pandemiak eragindako larrialdiagatik	H	Zuzena (1)	4,7	0,9	
34. Identifikazio biometrikoko sistema eguneratzea	H	PGN	3,3	0,6	A2,6-B3-C1
35. Segurtasuna eta zaintza Ondarroa, Lekeitio, Mundaka eta Bermeoko portuetan	H	Irekia	2,2	1,0	A1 B1
36. Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzua ematea	H	Irekia	4,9	1,1	B1
37. EAeko Administrazioaren arriskuen aseguru (*).	Prib.	Irekia	31,0	15,6	A5
3. Itegia Segurtasun Sailaren prima erregularizatzea			1,0	1,0	C4
GUZTIRA			255,7	77,7	

(*) Kopuruak EAeren Adm. Orokorri dagokion espedientearen zatia soilik barne hartzen du.

Kontratu motaren erreferentziak: O: Obrak, Horn.: Hornidurak, Z: Zerbitzuak, Prib: Pribatua.

Prozedura: PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua.

Tramitazioa: (1) Larrialdikoa Gainerakoak ohiko moduan tramitatzekoak dira.



		Euroak, milioikotan	
		ESLEIP.	
AKATSAK		KOP.	ZENBATEKOA
ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOA			
A1	Ez da justifikatzen lotetan ez zatitzea (SPKLren 99.3 art.).....	2	16,0
A2	Ez du justifikatzen lizitazioaren oinarriko aurrekontua kalkulatzeko edo zehazteko modua (SPKLren 100.2 art.)	3	28,2
A3	Pleguetan aurreikusitako balizko aldaketa ez dator bat SPKLren 204. art. ezarritakoarekin	2	13,3
A4	Kaudimen irizpideak esleipen irizpide modura balioztatu dira (SPKLren 88.1 art.).....	2	10,1
A5	Balorazio-txosten teknikoan emandako puntuazioen arrazoitze eskasa	1	31,0
A6	Arrazoi teknikoak gehiago zehaztea eta alternatiben balorazio ekonomikoa egitea (SPKLren 168. art.)	1	3,3
A7	Ez da egiaztatu espedienteak larrialdiko izapidea behar duenik (SPKLren 120. art.).....	1	0,8
ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA			
B1	Esleipen epeak SPKLren 158 art. ezarritako gehienekoa gainditzen du.....	3	15,6
B2	Kontratua ez da kontratatzailearen profileen argitaratu (SPKLren 154.1 art.)	2	12,8
B3	Kontratuaren formalizazioa ez da EBAOn argitaratu (SPKLren 154.1 eta 3 art.).....	1	3,3
B4	Kontratua formalizatzean Administrazioari egotz dakioken atzerapena (SPKLren 156.3 art.)	1	7,8
B5	Larrialdiko espedienteari ez zaio publikotasunik eman	1	16,6
EXEKUZIOA			
C1	2020an enpresari egin beharreko ordainketak aurreratu dira, ez baitira urteko ordainketak egokitu	1	3,3
C2	Obren hasieran Administrazioari egotz dakioken atzerapena (SPKLren 229. art.).....	1	7,8
C3	Kontratua betetzean atzerapenak.....	1	1,6
C4	Primak erregularizatzea espediente aldaketa tramitatu gabe (SPKLren 205. art.)	1	1,0
AURREKO URTEETAN ESLEITUAK			
D1	Azken ziurtapena epez kanpo onartu da (SPKLren 235.1 art. eta SPKLren 243.1 art.)	6	478,3
D2	Segurtasun- eta osasun-planak eta zuinketa egiaztatzeako aktak gehienezko epea gainditu dute (SPKLren 237. art.)	1	2,4
D3	Kontratazio-organoak ez du lan-programa onartu (HAKLEOren 144.1 art. eta pleguak).....	1	2,4
D4	Espediente-aldaketa onartu eta esleitu aurretik gauzatzea	1	0,4
D5	Aldaketa espedienterik izapidetu gabe gauzatzea, eta SPKLren 205. art. aurrekusi gabea	1	0,2
D6	Kontratua gauzatzean berandutzea, baldintza-agirietan aurreikusitako zigorrak aplikatu gabe	1	1,4



A.19 DIRULAGUNTZEN ANALISIA

Dirulaguntzak aztertuta, honako huts hauek azaleratu zaizkigu:

DIRULAGUNTZA ZUZENAK		Euroak, milioikotan		
KONTZEPTUA	D FASEA	KONPROMISO		AKATSA
		KREDITUA		
Ikastetxe itunduak COVID-19a aurreikusteko protokoloak.....	13,4	23,3		A4,5
Elkargi EGE Hornidura teknikoaren funtsa indartzea.....	18,0	-		A3
Gestamp North Europe Services SL. Bikaintasunezko Ikerketa Zentroa.....	5,6	2,4		A2,6
BGP COVID-19ak eragindako behar espezifikoak finantzatzea.....	6,0	-		-
Cáritas. Guztión Artean eta Azken Sarea Indartzen programen finantzaketa.....	4,5	-		-
Biofísica Bizkaia fundazioa Bereizmen handiko mikroskopiaren finantzaketa.....	4,5	-		A2
EHU COVID-19k eragindako digitalizazioaren finantzaketa.....	2,9	-		-
EAEko udalak Prebentzio protokoloak COVID-19 ikastetxeak.....	1,3	1,3		A3,5
Euskal Herriko Musika Bulego Elkarte. Arte Bizien Zirkuitu Berezia proiektua.....	1,5	-		A2,7
Novia Salcedo fundazioa REACTIVATE con NSF programa.....	1,2	-		A2,7
GUZTIRA	58,9	27,0		

BESTE DIRULAGUNTZA ZUZEN BATZUK		Euroak, milioikotan	
KONTZEPTUA		D FASEA	
Osasun Ikerketako Institutuak (Biocruces - Biodonostia - Bioaraba). PCTI-RS13 Euskadi hedatzea.....			1,5
Tecnalia Research – Innovation Fundazioa Kultura- eta sormen-industriaren sustapena.....			0,3
Itsas Salbamendu Humanitarioa Elkarte Aita Mari Zubia–Maydayterraneo proiektua.....			0,3
Vicomtech fundazioa Kultura- eta sormen-industriaren berrikuntza sustatzea.....			0,2
Save the Children. Haurrak eta migratzaileak babestea Balkanetan.....			0,2
Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkarte. Greziako errefuxiatuentzako jantokien proiektua.....			0,2
IRSE-EBI. Genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei jarduketa judizialekin laguntzeko proiektua.....			0,2
UNICEF. Errefuxiatuen eta migratzaileen krisia Bosnia eta Herzegovinan.....			0,2
Materials Physics Center Elkarte. Teknologia kuantikoen ikerketa indartzea.....			0,2
Innobasque. Innobasque. Basque DCCko pilotuaren diseinua - Euskadiko Kultur eta Sormen Barrutia.....			0,2
Miramar Jauregiaren Kontsultazioa Ustiapen-defizitaren finantzaketa.....			0,1
EUSKALIT. Kultura- eta sormen-industriaren antolamendu eta enpresa egituraren eredu berritzea.....			0,1
Egitari Zor Fundazioa. Terrorismoaren biktimei laguntza juridikoa emateko gastuak finantzatzea.....			0,1
GUZTIRA			3,8

Dirulaguntza horien onuradunek zuzeneko dirulaguntzak jaso zituzten aurreko bi ekitaldietakoren batean, kontzeptu berberengatik (A1 akatsa).

DIRULAGUNTZA IZENDUNAK		Euroak, milioikotan		
KONTZEPTUA	D FASEA	KONPROMISO		AKATSA
		KREDITUA		
Azti Fundazioa - 2020ko ekitaldiko jardura ez-ekonomikoaren finantzaketa.....	2,0	-		-
BC3 elkarte - Klima-aldaketari buruzko ikerketa, dibulgazioa eta prestakuntza.....	0,4	-		-
EHU - Irakasle eta ikertzaileen ordainsari-osagarriak.....	22,6	-		A8
Aparkabisa - Inbertsioak finantzatzea.....	0,1	-		A8
EHU (CAVIAR) - ZTBP Euskadi 2030 dinamizatzea eta ezartzea.....	0,2	0,1		A8
Deustuko Unibertsitatea - 2019-2022 Kontratu-programa.....	11,8	18,6		-
Deustuko Unibertsitatea - 2019-2022 Kontratu-programa.....	10,1	16,1		-
GUZTIRA	47,2	34,8		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRULAGUNTZEI BURUZKO ARAUDIAREN ANALISIA		Euroak, milioikotan	
KONTZEPTUA	DEIALDIAREN ZENBATEKOA	AKATSA	
EKONOMIA GARAPENA ETA AZPIEGITURAK			
1. Bideratu programa. Enpresak berregituratzea eta bultzatzea (COVID 19).....	22,1	B1,7	
2. Nekazaritza-, elikagai- eta arrantza-sektoreentzako laguntzak, ekoizpen- eta merkataritza-jarduera mantentzeko (COVID-19a)	2,0	B1,7,8	
3. Arrantza-sektoreentzako laguntzak, lehiakortasunari eusteko (COVID-19a)	3,0	B1,7	
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK			
4. Familiei laguntzea, COVID-19aren inpartu ekonomikoagatik.	15,0	B1,6,7	
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA			
5. Etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak (COVID-19a).....	15,5	B1,6,7	
OGASUNA ETA EKONOMIA			
6. Enpresa txiki eta ertainei finantza-laguntza emateko programa (COVID-19a).....	39,4	B1,4,6,7	
HEZKUNTZA			
7. Lanbide Heziketako ikastetxeetan 4.0 inguruneke teknologiak ezartzea	1,0	B1,3	
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA			
8. COVID-19 laguntzak EAEko turismo-sektorearentzat	15,0	B1,5,7	
9. COVID-19 laguntzak euskal merkataritza-sektorearentzat.....	9,9	B1,2,5,7	
10. Euskadi Turismo Programa, Kontsumorako pizgarri bonua.....	2,0	B1	
11. Ostalaritza sektoreentzako laguntzak (COVID-19a)	30,5	B1,6,7	
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA			
12. COVID-19araen osasun alarmak kaltetutako kultura sektoreko mikroenpresentzako laguntzak	2,0	B1,4	
LANA ETA JUSTIZIA			
13. Gizarte-ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikaturako laguntzak (COVID-19a)	2,4	B1,4,5,6	
14. Laguntzak lan-sozietate eta lan elkartuko kooperatiba txikientzat.....	1,0	B1,4,5	

DEIALDI PUBLIKO BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK		Euroak, milioikotan		
KONTZEPTUA	D FASEA	KONPROMISO		AKATSA
		KREDITUA		
Nekazaritza-, elikagai- eta arrantza-sektoreentzako laguntzak, ekoizpen- eta merkataritza-jarduera mantentzeko (COVID-19a).....	1,1	0,2	-	
Ostalaritza sektoreentzako laguntzak (COVID-19a) (*)	29,1	-	C1	
GUZTIRA	30,2	0,2		

(*) 2020an 7,4 milioi euroren zenbatekoa egikaritu da, eta 2021ean 21,7 milioi eurorena, kreditu-geldikinak txertatuta.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak, milioikotan

AKATSAK	EMANDAKO	
	KOP.	ZENBAT.
A1. Onuradunek beste dirulaguntza bat jaso dute helburu bererako aurreko ekitaldietan	13	3,8
A2. Oroitidazkiak ez du behar bezala justifikatzen deialdi orokor bat egiteko ezintasuna	4	15,2
A3. Ez da bateragarritasun-muga bete dela egiaztatzeko prozedurarik finkatzen	2	20,6
A4. Ordainketa aurreratua bermerik eratu gabe (698/1991 Dekretuaren 3.2 art.).....	1	36,7
A5. Ez da egiaztatu laguntzak banan-banan esleitu direnik.....	2	39,3
A6. Ez da egiaztatu diruz lagundu daitezkeen gastuak kontratatzeke 3 eskaintza eskatu direnik.....	1	8,0
A7. Onuradunek ez dute diruz lagundutako jarduera gauzatzeko, eta bitartekari gisa jarduten dute.....	2	2,7
A8. Emandako dirulaguntza izenduna EAEAOL Legean baimendutakoa baino handiagoa	3	23,0
B1. Ez dira eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko adierazleak gehitzen	14	160,8
B2. Ez da argitaratu emakida-proposamena egiteko ardura duen organoaren osaera	1	9,9
B3. Eskabideak aurkezteko epea hilabetetik beherakoa da	1	1,0
B4. Ez da jasotzen KKOari eta HKEeri informazioa emateko obligazioa.....	4	44,8
B5. Ordainketa aurreratuko sistema bat ezarri da behar bezala justifikatu gabe	4	28,3
B6. Ez dira laguntzen emakida-ebazpenak argitara eman	5	102,8
B7. Dirulaguntzen plan estrategikoa ez da aldatu deialdia egin aurretik.....	9	152,4
B8. Ez du ezarritako moduluen azterketa tekniko arrazoiturik	1	2,0
C1. Gobernu Kontseiluak ez du gastua alde aurretik baimendu.....	1	29,1

A.20 KONTABILITATE PUBLIKOA

AKTIBO EZ-KORRONTEA

Hona hemen 2020ko abenduaren 31n erregistratutako aktibo ez-korrontearen xehakapena:

	Euroak, milioikotan	
Ibilgetu ukiezina		52,0
Administrazioko emakidak	7,4	
Aplikazio informatikoak	21,0	
Jabetza industrial eta intelektuala.....	0,8	
Erabilera-lagapenak	13,7	
Ibilgetu immaterialetarako aurrerakinak	9,1	
Ondasun ibilgetu materialak		2.737,9
Lursailak	694,9	
Eraikuntzak.....	1.711,5	
Azpiegiturak	135,2	
Ondare historikoko ondasunak	4,4	
Beste ibilgetu material bat	102,8	
Indarreko ibilgetua eta aurrerakinak.....	89,1	
Finantza inb., taldeko entitate, talde aniztun eta elkartuetan epe luzera		1.870,9
Epe luz. finantza inbertsioak, ondareko tresnetan	1.827,9	
Taldeko erakundeetarako, talde aniztunetarako eta elkartuetarako kredituak	34,1	
Bestelako inbertsioak	8,9	
Epe luz. finantza inbertsioak		183,6
Salmentarako erabilgarri dauden aktibo finantzarioak	33,8	
Epe luz. kredituak	135,0	
Epe luz. eratutako gordailuak	14,8	
Zord. eta kobratz. bst. kontu batzuk epe luz.		103,5
Zordunak epe luz.	103,5	
GUZTIRA		4.947,9

Hauek izan dira aktibo ez-korronteko kontuen mugimenduak:

ELEMENTUA	Euroak, milioikotan				
	SALDOA 20.01.01	SARRERAK/ (ZUZKIDURA)	BAJAK/ ESKUALDAK.	ESKUDIR. INTERESA	SALDOA 20.12.31
Ibilgetu ukiezina.....	156,1	18,1	(8,8)	-	165,4
Ibilgetu ukiezinarean amortizazio metatua	(111,4)	(10,8)	8,8	-	(113,4)
Ibilgetu materialak	4.021,3	101,7	(36,7)	-	4.086,3
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	(1.291,1)	(90,5)	33,3	-	(1.348,3)
Taldeko erakundeetan epe luzeko finantza inbertsioak	1.923,5	180,8	(34,4)	1,3	2.071,2
Taldeko ent. epe luzeko finan. inberts. narriadura metatua ..	(180,3)	(20,5)	0,5	-	(200,3)
Epe luz. finantza inbertsioak	186,8	46,2	(32,4)	-	200,6
Beste finantza inbertsio batzuk	14,8	-	-	-	14,8
Epe luzeko inberts. finan. narriadura metatua	(21,8)	(19,8)	9,8	-	(31,8)
Zord. eta kobratz. bst. kontu batzuk epe luz.	88,7	17,1	(2,4)	-	103,4
GUZTIRA	4.786,6	222,3	(62,3)	1,3	4.947,9



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE-EMAITZA EKONOMIKOAREN ETA AURREKONTU-EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA

Bi emaitzen arteko berdinkatzea honako hau da:

	Euroak, milioikotan	
2020KO EKITALDIKO EMAITZA GARBIA		(725,3)
ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN PARTE EZ DIREN ERAGIKETAK		
Ken: Aurrekontu gastuak eta ordaintzeke zeuden hondarren deuseztatzeak		1.019,5
Inbertsio erreal propioak (A.6)	105,6	
Finantza-aktiboen gehikuntza (A.7)	220,7	
Zor publikoaren eta maileguen gutxitzeak (A.15)	686,6	
Zor publikoa kokatzeko batzordea	2,8	
Maileguen eta zorraren interesak, 2019an sortuak eta 2020an ordainduak	3,8	
Gehi: Aurrekontu sarrerak eta kobratzeke zeuden hondarren deuseztatzeak		2.190,7
lbilgetu materialaren eragiketengatik	0,2	
Finantza-aktiboen gutxitzea (A.11)	48,6	
Gerorapen eta zatikapenengatik e/luz zordunak murriztea	7,6	
Etxebizitza, garaje eta lokalen salmentagatik epe/l kredituak gutxitzea	0,6	
Eskubideak baliogabetzea	(6,3)	
Estatuko Administrazioaren kapitalezko dirulaguntzak (A.10)	47,2	
Jasotako beste kapitalezko dirulaguntza batzuk	0,2	
Obligazioen eta maileguen jaulkipenak (A.15)	2.092,6	
AURREKONTU EMAITZAREN PARTE EZ DIREN ERAGIKETAK:		
Gehi: Sartu gabeko gastuak		155,3
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	0,8	
Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk	1,0	
lbilgetua amortizatzea	100,4	
lbilgetu ez finantzariotik datozen galerak	2,7	
Arruntak ez diren beste partida batzuk	6,4	
Sortutako beste finantza gastu batzuk	9,8	
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	34,2	
Ken: Sartu gabeko diru sarrerak		60,9
lbilgetu ez finantzariorako dirulaguntzak egozteak	4,3	
Beste erakunde batzuentzat eraiki edo erositako aktiboak	48,3	
Hornidura gehiegizkoak	6,6	
lbilgetua besterentzeagatik emaitzak	0,1	
Sarrera finantzarioak	1,6	
2020KO EKITALDIKO AURREKONTU SUPERABITA		540,3



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN 2018EKO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikuluan xedatutakoa betez, agiri honetan aurkezten dira organo kudeatzaile bakoitzak egin dituen alegazioak eta justifikazioak. Horiek guztiak Kontrol Ekonomikoaren Bulegoak zentralizatu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazioaren emaitzei dagokienez (2020ko ekitaldikoak).

III.1 AUREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

3.1.3.- Konpromiso-kredituak

ALEGAZIOA

BECeKin eta BC3 Basque Centre for Climate Change Elkartearekin hartutako konpromisoak jaso ez izana akats baten ondorioz izan zen; lehenengoa 2022an zuzendu zen, eta bigarrena, 2021ean.

III.3 DIRULAGUNTZAK

Zuzeneko dirulaguntzak

3.3.2.- Itunpeko ikastetxeak. COVID-19 prebentziorako protokoloak

A5 akatsa - Ez da laguntzen bana-banako esleipena egiaztatu

ALEGAZIOA

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ituna duten ikastetxe guztiei emandako laguntzen banakako esleipena Gobernu Kontseiluak 2020ko azaroaren 24an onartutako emateko erabakian ezarritako irizpideen arabera egin zen (hil horretako 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta).

Laguntzak kalkulatzeko erabilitako datuak SPSS programan landutako Hezkuntza Sailaren datu-baseetatik atera ziren, eta doikuntzak Excel-en egin ziren, emandako eranskinen azaltzen diren irizpideen arabera.



3.3.2.- Gestamp North Europe Services SL. Ikerketako bikaintasun-zentroa

A2 akatsa - Memoriak ez du aski justifikatzen deialdi orokorra egiteko ezintasuna

ALEGAZIOA

Dirulaguntza justifikatzeko atalean kasuistika partikularrak ezartzen dira, eta adierazten da proiektu mota hori ezin dutela garatu merkatuko eskariaren arabera instalaziorik ez duten enpresek.

A6 akatsa - Ez du egiaztatu 3 eskaintza eskatu direnik diruz laguntzeko moduko gastuak kontratatzean

ALEGAZIOA

Ordainketa bakoitzarekin batera, egindako jarduerak deskribatzen dituen memoria tekniko bat erantsi da. Memoria horretan, jarduketa bakoitzaren espezifikotasuna eta zehaztasuna adierazten dira, eta ez da beharrezkoa hiru eskaintza eskatzea.

3.3.2.- Biofisika Bizkaia Fundazioa. Bereizmen handiko mikroskopia finantzaketa

A2 akatsa - Memoriak ez du aski justifikatzen deialdi orokorra egiteko ezintasuna

ALEGAZIOA

Laguntzaren helburua azken belaunaldiko bereizmen handiko mikroskopia elektroniko bat – EAEn bakarra– erostea finantzatzea zen. Kontuan izanik Biofisika Bizkaia Fundazioaren helburuetako bat Euskadin biomintzaren biofisika molekularren eta zelularren arloan bikaintasun-ikerketak sustatzea dela, eta horregatik mikroskopia optiko kuantitatibo aurreratuaren esparruan azpiegitura berezia duela, fundazio horri zuzeneko laguntza ematea erabaki zen, mikroskopia mota hori hartzeko eta erabiltzeko egokiena zelakoan.



3.3.2.- EAEko udalak. COVID-19aren aurkako prebentzio protokoloak ikastetxeetan

A5 akatsa - Ez da laguntzen bana-banako esleipena egiaztatu

ALEGAZIOA

COVID-19aren aurkako prebentzio-protokoloek eskatutako neurri jakin batzuk aplikatzearen ondorioz haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko guztiei emandako laguntza bakoitzaren banakako esleipena Gobernu Kontseiluak 2020ko abenduaren 29an onartutako emateko erabakian ezarritako irizpideen arabera egin zen.

2020-2021 ikasturtean COVID-19aren aurkako prebentzio-protokoloek eskatutako neurri jakin batzuk aplikatzearen ondoriozko garbiketa-gastu gehigarrien % 60 finantzatzeko laguntzak ematea aurreikusten zuen erabaki horrek, eta laguntza horien onuradun dira Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen titularrak diren udalak eta toki-erakundeak.

Zenbateko hori kalkulatzeko, kontuan hartu zen Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan garbiketaren kudeaketa Hezkuntza Sailarena bera denean izan den igoera, baita garbiketa-kontratetan egin diren gehikuntzak ere. Garbiketa modalitate bakoitzean (propioa eta kontratatua) kostuak taldeka kalkulatu ziren, eta, azkenik, kalkulu haztatua egin zen, garbiketa modalitate bakoitzean eragindako talde kopuruaren arabera.

Laguntzak kalkulatzeko erabilitako datuak Hezkuntza Sailaren datu-baseetatik atera ziren eta SPSS programan landu ziren. Excelen egin ziren doikuntzak, emandako eranskinen azaltzen diren irizpideen arabera.

3.3.2.- Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak. Arte Bizien Zirkuitu Berezia proiektua

Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak (EHMBE) 2020an aurkeztu zuen Arte Bizien Zirkuitu Berezia, COVID-19aren pandemiak eragindako itxieren ondoren arte bizien (musika, antzerkia eta dantza) ikuskizunen programazioa zuzenean eta premia indartzeko helburuarekin.

A2 akatsa - Memoriak ez du aski justifikatzen deialdi orokorra egiteko ezintasuna

ALEGAZIOA

Kultura Sailak ez du kultura-programaziorik zuzenean egiten, jarduera hori ez baitago bere eskumen-esparruaren barruan. Nolanahi ere, hasierako izapidetze-memorian justifikatu zen bezala, Sailak ez zuen Elkarteak egindako eskaerari erantzuteko moduko deialdirik; alde batetik, aurreikusitako jarduerak zeharkako izaera zuelako, eta, bestetik, argudiatzen zen salbuespeneko egoeratik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A7 akatsa - Onuradunek ez dute diruz lagundutako jarduera egiten, eta bitartekari gisa jarduten dute

ALEGAZIOA

Dirulaguntza jaso duen elkarteak ez da erakunde programatzailea, eta bere jarduna Arte Bizien Zirkuitu Bereziaren koordinazioan oinarritu zen; horrela, Zirkuituan parte hartu zuten konpainien, musika-taldeen eta teknikarien zuzeneko kontratazioa egin zuen. Kontratazio horiek guztiak «txikiak» izan ziren ikuspegi ekonomikotik, eta ikuskizun eszenikoen eta musikalen programazioan ohikoa den dinamikari erantzun zioten; hau da, erakunde programatzaileen interesari eta erabakitze ahalmeneri, publikoak zein pribatuak izan.

Nolanahi ere, elkarteari emandako dirulaguntzako funtsekin ordaindutako ezohiko jarduera zela kontuan hartuta, Sailak une oro zaindu zuen Zirkuitua bertan parte har zezaketen eragile guztiei –musika-taldeei, arte eszenikoetako konpainiei eta espazio programatzaileei– eman beharreko informazioa zehatz-mehatz errespetatuz egin zedin.

Lehiaren mendeko dirulaguntzak

3.3.4 eta 3.3.5

Enpresa txiki eta ertainei finantza-laguntzak emateko programa (COVID-19).

B4 akatsa - Ez da Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta HKEEri informazioa emateko betebeharra jaso.

ALEGAZIOA

Martxoaren 31ko 50/2020 Dekretuak (Enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren 2020ko programa garatzen duena, COVID-19ren eragin ekonomikoari aurre egiteko), 14.1 artikuluan, hauxe ezartzen du: «Finantza-laguntzako programa honetako enpresa eta pertsona onuradunek eta erakunde laguntzaileek Ogasun eta Ekonomia Sailaren egiaztapen-ikerketak eta azterketak-jarduketak onartu beharko dituzte».

Ondorioz, kontuan hartu behar da programa honen erakunde onuradunak behartuta daudela Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Ogasun eta Ekonomia Sailaren barruan dagoen organoak, dekretu hori onartzen den egunean egin ditzakeen kontrol-jarduketetara.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan 4.0 inguruneko teknologiak ezartzea

B1 akatsa - Eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko aukera ematen duen adierazlerik ez da sartu

ALEGAZIOA

Deialdi hau Hezkuntza Sailaren 2020. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago. Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez onetsi zen plan hori, eta zegokion fitxan honako adierazle hauek jaso zituen:

- 4.0 industriari lotutako eremu estrategikoak garatzen jarduten duten itunpeko ikastetxe pribatuen guztizko kopuruari dagokionez, deialdian zer ehunekok parte hartzen duen. Magnitudea: % 85.
- Parte hartutako ikastetxe pribatuetatik dirulaguntza zer ehunekok eskuratu duen: % 100.
- 4.0 industriari lotutako eremu estrategikoak garatzen jarduten duten itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleen guztizko kopuruari dagokionez, jasotako dirulaguntzaren onura zer ehunekok izan duen. Magnitudea: % 90.

B3 akatsa - Eskabideak aurkezteko epea hilabete baino laburragoa da

ALEGAZIOA

COVID-19aren eraginez sortutako egoerak ekarri zuen atzerapenaren ondorioz, deialdia ezin izan zen EHAAn argitaratu ekitaldiko une oso aurreratu batera arte (2020ko azaroaren 4an).

Hori horrela, eta kontuan hartuta Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 20ko Aginduaren arabera –zeinaren bidez makineria eta/edo ekipamendu aurreratua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzen deialdia egiten baita, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan 4.0 inguruneen eremuko teknologiak ezar ditzaten–, justifikatzeko agiriak aurkezteko epea 2020ko abenduaren 30a dela, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak egokitzen jo zuen eskabideak aurkezteko epea hilabetetik hamabost egun baliodunera laburtzea, izapide guztiak behar bezala egiteko eta, justifikatzeko epea amaitzen den eguna baino lehen, behin betiko ebazpena emateko.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EAEko turismo-sektorerako COVID-19 Laguntzak

B1 akatsa - Eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko aukera ematen duen adierazlerik ez da sartu

ALEGAZIOA

Laguntza-programa administrazioek COVID-19aren hedapenaren ondorioei aurre egiteko hartu zituzten neurriei erantzuteko sortu zen. Horrenbestez, larrialdi-egoera batean sortutako ezohiko programa da, jarduera mugatu edo eten zaien sektoreei laguntzeko, eta, hain zuzen ere, diruz lagundutako erakundeen eta pertsonen kopuruan datza programaren efizientzia eta eraginkortasuna.

EAEko merkataritza-sektorerako COVID-19 laguntzak

B1 akatsa - Eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko aukera ematen duen adierazlerik ez da sartu

ALEGAZIOA

Laguntza-programa administrazioek COVID-19aren hedapenaren ondorioei aurre egiteko hartu zituzten neurriei erantzuteko sortu zen. Horrenbestez, larrialdi-egoera batean sortutako ezohiko programa da, jarduera mugatu edo eten zaien sektoreei laguntzeko, eta, hain zuzen ere, diruz lagundutako erakundeen eta pertsonen kopuruan datza programaren efizientzia eta eraginkortasuna.

Kontsumoa sustatzeko Euskadiko Turismo Bonua programa

B1 akatsa - Eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko aukera ematen duen adierazlerik ez da sartu

ALEGAZIOA

Laguntza-programa administrazioek COVID-19aren hedapenaren ondorioei aurre egiteko hartu zituzten neurriei erantzuteko sortu zen. Horrenbestez, larrialdi-egoera batean sortutako ezohiko programa da, jarduera mugatu edo eten zaien sektoreei laguntzeko, eta, hain zuzen ere, diruz lagundutako erakundeen eta pertsonen kopuruan datza programaren efizientzia eta eraginkortasuna.



Ostalaritza-sektorerako laguntzak (COVID-19)

B1 akatsa - Eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko aukera ematen duen adierazlerik ez da sartu

ALEGAZIOA

Laguntza-programa administrazioek COVID-19aren hedapenaren ondorioei aurre egiteko hartu zituzten neurriei erantzuteko sortu zen. Horrenbestez, larrialdi-egoera batean sortutako ezohiko programa da, jarduera mugatu edo eten zaien sektoreei laguntzeko, eta, hain zuzen ere, diruz lagundutako erakundeen eta pertsonen kopuruan datza programaren efizientzia eta eraginkortasuna.

C1 akatsa – Gobernu Kontseiluak ez du gastua alde aurretik baimendu

ALEGAZIOA

Baimena Gobernu Kontseiluari aurkezteko administrazio-izapide guztiak egin ziren, aldeko txostenak barne, baina, oker baten ondorioz, ez zitzaion Erabakia Gobernu Kontseiluari aurkeztu.

COVID-19aren alarma sanitarioak ukitutako kulturaren sektoreko mikroenpresentzako laguntzak

B4 akatsa - Ez da Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta HKEEri informazioa emateko betebeharra jaso

ALEGAZIOA

Dirulaguntza hauek arautzen dituen Aginduaren azken xedapenetako lehenak xedatzen duenez, 1/1997 Legegintza Dekretuak, azaroaren 11koak, onetsitako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluan ezarritakoa aplikatu beharra dago. VI. titulu horren barruan dago 51. artikulua, eta haren 1.k atalean aipatzen da onuradunak informazioa Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta HKEEri emateko betebeharra. Ondorioz, betekizun hori, inplizituki, Aginduan jasotzen dela uste da.



III.4 KONTRATAZIOA

III.4.2 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

ESPEDIENTEA 2, 3 eta 4 – Euskal Y-a. Antzuola-Ezkio/Itsaso Mendebaldea, Hernialde-Zizurkil eta Zizurkil-Andoain zatiak

D1 akatsa - Azken ziurtagiria epez kanpo onartzea (SPKLTBren 235.1 eta SPKLren 243.1)

ALEGAZIOA

Eusko Jaurlaritzak, kontratu honen sustatzaile den aldetik, ezin duela adierazitako epea bete justifikatzen da jarraian, Euskal Y-aren trenbide-plataforma eraikitzekeko administrazioen arteko gomendioari lotuta egoteagatik.

Aipatu epea ADIFek plataformaren obren harrera, amaierako egiaztapena eta likidazioa egiteko finkatutako prozeduraren emaitza da. Horiek EAeko administrazio orokorrak lizitatzen ditu, estatuko administrazio orokorrak, EAeko administrazioak eta ADIFek 2006ko apirilaren 24an sinatu zuten (eta 2017ko azaroaren 27an haren irismena aldatu zen) lankidetzeta-hitzarmenaren arabera. Horretan oinarrituta, EAeko trenbide-sare berria eraikitzekeko jarduketara zenbaiten mandaturatu egiten da. ADIFek finkatutako prozedura, «Proiektuen onespenean eta obren egikaritzean abiadura handiko ADIFen jarduketetarako prozedura», IV. eranskinean, «Plataforma-obren harrera, obra-bukaeraren ziurtagiria eta likidazioa egiteko prozedura», sartuta dago.

Hitzarmen horren Hirugarren Klausularen 2. puntuan ezartzen denez, obrak jasotzeari dagokionez, «Sustapen Ministerioko organo eskudunari dagokio obrak jasotzea», eta bosgarren klausularen C atalak, Batzorde Teknikoa sortzeari buruzkoak, zera xedatzen du: «Eraikitzekeko fasea koordinatzea, eta obrak onetsitako proiektuetara egokitzen direla bermatzea».

Eskumen-esparruak, eta deskribatu diren prozedurek, agerian jartzen dute EAeko administrazioak, kontratazio-espedienteen kontratazio-organoa den aldetik, ezin duela bermatu kontratazio publikoaren arloko araudiak xedatzen dituen epeak beteko direnik, hizpide dugun kasuan, obraren harrera egin ondoren obra-bukaeraren ziurtagiria onartzeko.

Euskal Trenbide Sareak, obra-zuzendaritzen arduraduna den aldetik, eta Eusko Jaurlaritzak, obren mandatu bidezko sustatzailea den aldetik, behin eta berriz idatzi zioten ADIF Abiadura Handia-ko Ikuskapen, Kalitate, Segurtasun eta Osasun zuzendariordeari, Sustapen Ministerioko Plangintza eta Proiektuen zuzendariorde orokorrari eta Sustapen Ministerioko Azpiegituren idazkari orokorrari, hitzarmenean adierazten diren izapideei eta baimenei lehentasuna eman eta haiek arin ditzaten. Eskaera horiek, era berean, hitzarmeneko batzorde teknikoaren bileretara eta hitzarmenaren jarraipena egiteko batzordeen bileretara eraman dira, baina, prozeduraren 2018ko berrikuspenak ez du epe zehatzik jasotzen ADIFek dagokion ikuskapen-txostena egin dezan, eta horrela, Kontratazio-organoa obra-bukaeraren ziurtagiriaren onespenean eman ahal izateko.



ESPEDIENTEA 9 - Lehen Hezkuntzako Lemoiz HLHI eraikina handitzea (Lemoiz)

D6 akatsa – Atzerapena kontratua gauzatzean, baldintza-agirietan aurreikusitako zigorrak aplikatu gabe

ALEGAZIOA

Lurralde Ordezkaritzak zigorrak proposatu zituen 2021eko maiatzaren 14ko txostenaren bidez. Hala ere, Kontratazio Zerbitzuak jakinarazi zuen obra amaitu ondoren (egun berean) ez zela bidezkoa atzerapenagatiko zigor-espeditentea irekitzea, zigorrak enpresak dituen betebeharrak hitzartutako denboran betetzera behartzeko jarri behar baitira; horrenbestez, lizitatuak obra gauzatzen atzeratu zen unean bertan jarri beharko ziren, ez obra amaitu ondoren. Ildo horretan, Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzien Salak 2015eko urtarrilaren 28ko 30/2013 errekurtsio-zenbakiari dagokionez emandako epaiaren hirugarren oinarri juridikoan adierazten denez, «Zigorren izaera juridikoaren arabera, –hau da, “betebeharra erregularitasunez betetzen dela ziurtatzeko presio-bitartekoak” edo “bete dezaten suspertzeko hertsatze-funtzioa”–, nekez pentsa dezakegu hori zentzuzkoa denik, baldin eta, ziurtatu beharrekoa, hau da, hori dakarren mantentze-lan zerbitzuen kontratuaren ondoriozko betebeharra, dagoeneko amaitu bada». Hori dela eta, ez da zigorrak izapidetu.

ESPEDIENTEA 15 - Sailaren mendeko zentroak garbitzeko zerbitzua - COVID-19Aren ondoriozko Ezohiko garbiketak aldatuta

D4 akatsa - Aldaketa onartu eta esleitu aurretik gauzatzea

ALEGAZIOA

COVID-19ak polizia-zerbitzuen jardunean eragin zuen larrialdia bereziki gertatu zen herritarrari arreta ematen zitzaion polizia-zentroen garbiketetan eta polizia-ibilgailuetan. Funtsezko zerbitzuak ematea ziurtatzeko berehala hartu behar izan ziren neurriek zera zuten helburutzat: Ertzaintzaren jarduna gauzatutako azpiegitura horien garbiketa eta asepsia, ahal zen neurrian, bermatzea.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4.3 2020AN ADJUDIKATUTAKO ESPEDIENTEAK

ESPEDIENTEA 18 - Getxoko ertzain-etxea eraberritzea eta handitzea

A4 akatsa - Adjudikazio-irizpide gisa kaudimen-irizpideak baloratzea (SPKLren 88.1)

ALEGAZIOA

Hauek dira erabilitako adjudikazio-irizpideak:

22.2.1.- Balio-judizioaren mende dauden irizpideak

- Irizpidea: Lanak antolatzea. Haztapena: % 45

Irizpidea balioesteko metodoaren azalpena:

- Obra gauzatzeko metodologia (10 puntu). Kontratatistak lanak behar bezala gauzatzeko egindako proposamena baloratzea, eta honako hauek baloratzea: jarduera garrantzitsuak gauzatea, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa, zuzendaritza fakultatiboarekiko komunikabideak eta kanalak, dokumentuen kudeaketa eta proposatutako gauzatze-kontrola.
- Gauzatzeko proposatutako taldea eta giza baliabideak antolatzea. (10 puntu), osaera, harremanak, dedikazioa, funtzioak, erantzukizunak, laguntza teknikoko taldea eta giza baliabideen atxikipen mugagabea baloratzea.
- Lanen programazioa (10 puntu), eta honako hauek baloratzea: lanen plangintza, zeregin bakoitzerako baliabideen esleipena, arriskuak, bide kritikoa eta gauzatzean gerta daitezkeen atzerapenei aurre egiteko hartu beharreko neurriak, bai eta kontratatistak lanak egiteko erabiliko duen metodologiarekiko koherentzia ere, egikaritze-epea betetzea (edo, hala badagokio, laburtzea) ahalbidetzeko.
- Hiri-inguruneari eragindako eraginak (10 puntu), eta honako hauek baloratzea: hurbileko ingurunea ezagutzea, ibilgailuak sartzeko neurri zuzentzaileak hartzea, obra-zerbitzuak, energiaren zentzuzko erabilera, atmosferara ahalik eta emisio gutxien igortzea, zaratak murriztea, ukitutako pertsonen komunikazio- eta informazio-ekintzak egitea, edo obra-eremua antolatzea (5 puntu), baita horietan biltzen diren baldintzatzaileak baloratzea, eta obrak egiteko faseen, zirkuituen irisgarritasunaren eta obren arteko koordinazioa eta lekualdaketak.

(...)

22.2.2.- Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak:

- Irizpidea: Prezioa Haztapena: % 55

Irizpide horien artean, gure ustez, HKEEK zalantzan jartzen du gauzatzeko proposatutako taldea eta giza baliabideak antolatzeko irizpidea sartzea. Hala ere, adjudikazio-irizpide hori baliozkoa da, eta SPKLren 145.2.2 artikuluan jasotakoaren arabera sar daiteke. Artikulu horrek honako hau adierazten baitu: «(...) irizpide kualitatiboak (...) honako hauek izan ahalko dira, besteak beste: 2.a Kontratua egikaritu behar duten eta hari atxikita dauden



langileen antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia, baldin eta langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake hobeki egikaritzeko».

ESPEDIENTEA 19 - Bermeoko portuko babes-dikea indartzea. II fasea

A3 akatsa - Baldintza-agirietan aurreikusitako balizko aldaketa ez dator bat SPKLren 204. artikuluan ezarritakoarekin

ALEGAZIOA

Erreferentziako kontratuko administrazio-klausula partikularren agiriaren 16. atalean (Kontratua aldatzea) zehaztutako inguruabarrak aurreikusteko modukoak dira itsas aldeko obra bat egiteko orduan. Hori dela eta, zuzena eta egokia zela erabaki zen.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak (Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora), 204. artikuluan (Administrazio-klausula partikularren agirietan aurreikusitako aldaketak), bi baldintza ezartzen ditu agirien klausula horretarako:

- a) Aldaketa-klausulak modu argi, zehatz eta zalantzagabean formulatuta egon beharko du.
- b) Halaber, haren edukiari dagokionez, aldaketa-klausulak honako hauek zehaztu beharko ditu behar besteko xehetasunarekin: norainokoa, mugak eta izaera; hartaz baliatu ahal izateko baldintzak, erreferentzia eginez modu objektiboan egiazta daitezkeen inguruabarrei, eta aldaketarako jarraitu beharreko prozedura. Aldaketa-klausulak ezarriko du, halaber, aldaketak ezingo duela berekin ekarri kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk.

Klausula horretan, kontratu-aldaketa behar bezain argi eta zehatz zein kasutan gerta litekeen zerrendatzen da, kasu hauetan, esaterako: adjudikatutako eraikuntza-proiektuan aurreikusitakoak baino neurketa handiagoak egotea, eraikuntza-elementu ezkututak agertu direlako, proiektuan gaizki dimentsionatutako elementuak agertu direlako edo proiektuak hasieran aurreikusitakoa baino kontserbazio-egoera okerragoan daudelako.

Halaber, klausulan azken horien irismena, muga eta izaera eta baldintzak zehazten dira, bai eta inguruabar horiek gertatzen direla egiaztatzeke prozedura, inguruabarrak eta metodoa ere. Elementu horiek guztiak baldintza-agiriaren 16. klausulan deskribatu dira, hobeto edo okerrago; hortaz, uste dugu aipatutakoa ez dela urruntzen 204. artikuluan xedatutakotik.

Garrantzitsua da aipatzea obra-kontratu bat sustatzen duten organoek zaila izaten dutela 16. klausula hori idaztea, obra batean gerta litezkeen ustekabeko egoerei aurrea hartu behar baitie; obra hori, kasurik onenean, baldintza-agiriak idatzi eta onartu ondorengo sei eta bederatzita hilabete bitartean hasi ahal izango da. Aurreikusitako edozein egoerak kontratua ezinbestean aldatzea badakar, organo sustatzaileak berriz pentsatu beharko du ea proiektua bideragarria den, lizitazioa egin aurretik. Horrenbestez, klausula horrek aurreikusi ezin dena

aurreikusteko moduko bihurtu nahi duenez, eta haren definizioa organo sustatzailearen eta aurreratzeko duen ahalmenaren esku utzita, klausula honen zehaztasun-maila aurreikusitako aldaketa eragin dezaketen kasuak ohartarazteko eta horiek identifikatzeko nahikoa dela uste dugu.

A4 akatsa - Adjudikazio-irizpide gisa kaudimen-irizpideak baloratzea (SPKLren 88.1)

ALEGAZIOA

Proposatutako adjudikazio-irizpideak egokiak dira, ohikoak obren kontratazio-pleguetan, eta eskaintza onuragarriena baloratzeko aukera ematen dute. Irizpide horiek ez dituzte inola ere aipatzen enpresa lizitatzailerik eskatzen zaizkien betekizunak; kaudimen-irizpideak, alegia. Gainera, adjudikazio-irizpideak aukeratu izanaren justifikazioa behar bezala arrazoituta dago dagokion memorian. Honako hauek izan ziren adjudikazio-irizpideak:

- MEMORIA TEKNIKOA
 - EGINGO DIREN LANAK DESKRIBATU ETA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA.
 - LANAREN ANTOLAMENDUA ETA PROGRAMA.
- HOBEKUNTZAK
- ESKAINTZA EKONOMIKOA
- BERME-EPEA

Gure ustez, aipatutako azken hiru irizpideei dagokienez ez dago inolako zalantzarik, ez baitute zerikusirik lizitatzailerik baten kaudimen-baldintzekin. Hala ere, lehenengo irizpideari dagokionez (Memoria Teknikoa) eta, zehazkiago, lehenengo azpi-irizpideari dagokionez (egin beharreko lanak deskribatu eta justifikatzeko memoria), uste dugu balitekeela gaizki-ulerteru semantiko bat egotea. Hau da, kontratua sustatzen duen organoak irizpide hori jasotzean zera bilatzen du: enpresa lizitatzailerik batek obraren esparrua eta ingurunea zenbateraino ezagutzen dituen egiaztatzea, bere ekipoak eta obra hori gauzatzeko baliabideak nola antolatuko dituen egiaztatzea, bere zeregin bakoitza nola programatuko duen eta horretarako zer ekipo izango dituen egiaztatzea, bai eta obraren antolaketa horretan eragina izan dezaketen baldintzatzaileez egindako azterketa, etab.; hau da, ez da inola ere aztertzen ari enpresa lizitatzailerik batek obra egiteko zer-nolako gaitasuna duen, obra horren gauzatzeko nola antolatuko duen eta proposamen hori bideragarria eta koherentea den baizik.



ESPEDIENTEA 20 - Zaldibarko zabortegian hondeatze-lanak, segurtasun-dikea eraikitzea eta agregakinez hornitzea

B5 akatsa - Larrialdi-espediterearen publizitaterik eza

ALEGAZIOA

Uste da ez dela egokia akats hori jasotzea; izan ere, SPKLren 120. artikuluan larrialdiko izapidetzeari buruz egiten den erregulazioan ez da eskatzen egindako adjudikazioen publizitatea egitea, ez kontratatzailearen profilean, ezta kontratuen erregistroan ere.

ESPEDIENTEA 21 - 107 zuzkidura-bizitokiren eraik. Txurdinagako 002 lurzatian (AR 301, 314 pol.)

B4 eta C2 akatsak – Administrazioari egozteko moduko atzerapenak (SPKLTBren 156.3 eta 229. art.)

ALEGAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak 107 zuzkidura-bizitoki eraikitzea sustatu du Bilboko Txurdinagako 002 lurzatian (003 etxe-uhartea, 314 poligonoa, 301 AR), eta, ildo horretatik, 2017ko azaroaren 8an, obra-lizentzia emateko eskatu zion Bilboko Udalari, oinarrizko proiektuaren arabera.

Era berean, eta jarduketa horri dagokionez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko urtarrilaren 19ko Aginduaren bidez, Bilboko Txurdinagako 002 lurzatian (314 poligonoa, 003 etxe-uhartea, AR 301) 107 zuzkidura-bizitoki gauzatzeko proiektua onartu zen, 10.706.885,86 euroko kontrata-aurrekontuarekin (BEZa barne), obra-kontratu bat formalizatzeko dagokion espediterearen administrazio-izapideak egin ahal izateko.

2018ko urtarrilaren 26an, Bilboko Udalaren errekerimendua jaso zen Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean, erreferentziako obra-lizentziaren eskabidea zuzentzeko. 2018ko martxoaren 20an erantzun zitzaion horri.

Horretarako egindako eskabidearen ondorio, 2018ko martxoaren 28ko Ebazpenaren bidez, Bilboko Udalak baimena eman zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari 002 lurzatia banantzeko.

2018ko ekainaren 6an, banantze-eskritura formalizatu zen. Horren arabera, banandu egiten da 002 lurzatia, 107 zuzkidura-bizitoki eraikitzeko; hau da, Bilboko AR301-Txurdinagako 0314 poligonoko 003 etxe-uharteko 002 lurzatia. Lurzati hori Txurdinaga-Begoñako Zabalgunea poligonoko II. sektoreko 17-18 lurzati zaharrari dagokio.

Araudian jasotako prozedura amaitu ondoren, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko azaroaren 12ko Aginduaren bidez esleitu zen 107



zuzkidura-bizitokiak eraikitzeke obrak egiteko kontratua, 7.105.478,67 euroan (710.547,87 euroko BEZa dagokio).

2018ko azaroaren 19an, Bilboko Udalaren errekerimendua sartu zen Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan, aipatutako obra-lizentziaren eskabideari buruzkoa. Horren bidez, Kanpo-sustapeneko Sailatalak eta Obra Lizentziaren Atalak egindako txostenak helarazi ziren, horietan jasotako akatsak zuzentzeko. Azken horrek egindako txostenean, obra-lizentzia eman aurreko izapide gisa, fidantza bat eratu beharra jasotzen da, hondakinen kudeaketarako.

2019ko martxoaren 26an, Bilboko Udaleko Hiri Plangintza Saileko zinegotzi ordezkararen 2019ko martxoaren 13ko Ebazpena sartu zen Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan, Alkatetza-Lehendakariak hari eskuordetutako eskuduntzak erabiliz. Ebazpen horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari obra-lizentzia eman zitzaion, 2018ko urtarrileko gauzatze-proiektuaren eta 2018ko azaroko eranskinean egindako aldaketen arabera, gaia zuzentzen duten arauak eta, bereziki, espedientearen gaineko txostena egin duten Zerbitzu Teknikoek adierazitakoa, zorrozki betetzeko baldintzarekin. Ebazpenarekin batera, Kanpoko Sustapeneko Obretako eta Basoetako Sailatalak eta Prebentzioko Sailatalak egindako txostenak helarazi zaizkio, obra gauzatzean, horietan adierazten diren baldintzak bete ditzan.

2019ko apirilaren 24an, Etxebizitza Zuzendaritzak berraztertze-errekurtsoa jarri zuen obra-lizentziari zegokionez.

